

1/1993 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, apirilaren 20koa Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzeari buruzkoa.¹

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Dekretua Arauemaile osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, Foru Dekretua Arauemailearen zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

Artikulu Bakarra	3
EKONOMI IHARDUEREN GAINEKO ZERGAREN TESTU BATERATZAILEA.....	3
I. KAPITULUA: IZAERA ETA EGITATE ZERGAGARRIA.....	3
1. Artikulua	3
2. Artikulua	3
3. Artikulua	3
4. Artikulua	3
II. KAPITULUA: SALBUESPENAK.....	4
5. Artikulua	4
III. KAPITULUA: SUJETU PASIBOA.....	6
6. Artikulua	6
IV. KAPITULUA: ZERGA KUOTA.....	6
7. Artikulua	6
8. Artikulua	7
9. Artikulua	7
10. Artikulua	7
11. Artikulua	8
12. Artikulua	9
V. KAPITULUA: EZARRALDIA ETA SORTZAPENA	10
13. Artikulua	10
VI. KAPITULUA: KUDEAKETA	11
14. Artikulua	11
14 bis artikulua.....	12
15. Artikulua	13
16. Artikulua	13
17. Artikulua	13
18. Artikulua (indargabetua).....	14
XEDAPEN GEHIGARRIAK	14
Lehenengoa	14
Bigarrena.....	14
Hirugarrena	14
XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA.....	14
INDARGABETZE XEDAPEN BAKARRA.....	15
AZKEN XEDAPENA	15
I. ERANSKINA	16
TARIFAK	16
<i>Lehen Sekzioa</i>	<i>16</i>

¹ Azaroaren 27ko 1.202/2001 Foru Aginduak, hainbat zerga arautan jasotako zenbatekoak pezetatik eurora aldatu eta aldaketa horri buruzko arauak ematen dituenak, xedatutakoari jarraiki, Foru Dekretu honek pezetatan jasotzen dituen zenbateko guztiak eurotar aldatuak geratzen dira. (Abenduaren 13ko GAO, 238. zk.a)

<i>Enpresa Iharduerak: AbelaZkuntza, Mehatze, Industria, Merkataritza eta Zerbitzuguneak</i>	<i>16</i>
0 SAILA: ABELAZKUNTZA INDEPENDIENTEA.	16
1 SAILA. ENERGIA ETA URA.	18
2 SAILA. MATERIALE EZ ENERGETIKO ETA BEREN DERIBATUAK ERAUZTEA ETA TRANSFORMATZEA. INDUSTRIA KIMIKOA.	22
3.SAILA. METAL TRANSFORMAGINTZA. PREZISIO MEKANIKA	32
4 SAILA. BESTE INDUSTRI MANUFAKTURATZAILE BATZUK.	45
5 SAILA. ERAIKINTZA.	63
6 SAILA. MERKATARITZA, JATETXEA ETA OSTALARITZA, KONPONKETAK.	69
7 SAILA. GARRAIOAK ETA KOMUNIKABIDEAK	96
8. SAILA. ERAKUNDE FINANTZARIAK, ASEGURUAK,ENPRESEI PRESTATU ZERBITZUAK ETA ALOKAIRUAK.	103
9 SAILA. BESTE ZERBITZU BATZUK.	112
<i>Bigarren Sekzioa.....</i>	<i>124</i>
<i>Iharduera Profesionalak.....</i>	<i>124</i>
0 SAILA NEKAZARITZA, ABELAZKUNTZA, EHIZA, OHIARTZANTZA ETA ARRANTZAREKIN ZERIKUSIRIK DUTEN PROFESIONALAK.	124
1 SAILA: ENERGIA, UR ETA MEATZARITZA ETA INDUSTRIA KIMIKOAREN BEREZKO IHARDUEREKIN ZERIKUSIRIK DUTEN PROFESIONALAK.....	124
2 SAILA. AERONAUTIKA, TELEKOMUNIKABIDE ETA ZEHAZTASUN MEKANIKAREN INDUSTRIEKIN ZERIKUSIRIK DUTEN PROFESIONALAK.	125
3 SAILA. BESTE ZENBAIT INDUSTRIA MANUFATURARIREKIN ZERIKUSIRIK DUTEN PROFESIONALAK.	125
4 SAILA. ERAIKUNTZAREKIN ZERIKUSIRIK DUTEN PROFESIONALAK.	126
5 SAILA. MERKATARITZA ETA OSTALARITZAREKIN ZERIKUSIRIK DUTEN PROFESIONALAK.	126
6 SAILA. GARRAIO ETA KOMUNIKABIDEKIN ZERIKUSIRIK DUTEN PROFESIONALAK..	127
7 SAILA. FINANTZIAL, LEGE, ASEGURU ETA ALOKAIRU IHARDUEREKIN ZERIKUSIRIK DUTEN PROFESIONALAK.	127
8 SAILA. BESTE ZERBITZUEKIN ZERIKUSIRIK DUTEN PROFESIONALAK.	129
<i>Hirugarren Sekzioa.....</i>	<i>132</i>
<i>Iharduera Artistikoak.....</i>	<i>132</i>
II. ERANSKINA.....	134
INSTRUKZIOA.....	134
I. KAPITULUA	134
XEDAPEN OROKORRA	134
II. KAPITULUA.....	134
IHARDUEREN ERREGIMENA	134
III. KAPITULUA	139
KUOTEN ERREGIMENA	139

Gipuzkoako Lurralde Historikorako 1993ko aurrekontua onartu zuen otsailaren 17ko 1/1993 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarriak kargu eman zion Diputatuen Kontseiluari Ekonomi Ihardueren gaineko Zergari buruzko indarreango araudia testu bakar batean jartzeko, aipatu zerga indarrean sartu eta bi hilabeteko epean.

Agindu hori bete asmoz, testu bateratzaile hau egin da, bertan honako indarreango xedapenak jasotzen direlarik: uztailaren 5eko 13/1989 Foru Araua, urriaren 24eko 56/1990 Foru Dekretua, apirilaren 5eko 7/1991 Foru Araua, apirilaren 27ko 1/1991 Foru Dekretu Arauemailea, azaroaren 4eko 10/1991 Foru Araua, azaroaren 12ko 2/1991 Foru Dekretu Arauemailea, otsailaren 18ko 19/1992 Foru Dekretua eta otsailaren 2ko 4/1993 Foru Dekretua.

Hori horrela izanik, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuaren proposamenez, eta 1993ko apirilaren 20ean egindako Diputatuen Kontseiluaren aurre onespenez,

2015/01/01ean eguneratutako testua.

XEDATU DUT

Artikulu Bakarra.

Ekonomi Ihardueren gaineko Zergari buruzko indarreango araudiaren Testu Bateratzailea onartu da, bai eta Tarifak eta horien aplikaziorako Instrukzioa, I eta II eranskin gisa azaltzen direnak.

EKONOMI IHARDUEREN GAINEKO ZERGAREN TESTU BATERATZAILEA

I. kapitulua: Izaera eta Egitate Zergagarria

1. Artikulua.

1. Ekonomi Ihardueren gaineko Zerga izaera erreala duen zuzeneko zerga da, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan enpresa, lanbide edo arte-ihardueretan aritze hutsa dugu bere egitate zergagarria, iharduera horiek jakineko tokian egin edo ez, eta zergaren tarifetan zehaztuta egon ala ez.

2.² Zerga honen ondorioetarako, enpresa ihardueratzat ondoko hauek hartuko dira: abeltzaintzakoak (berezko izaera dutenean), meatzaritzakoak, merkataritzakoak eta zerbitzugintzakoak. Beraz, ez dira halakotzat hartuko nekazaritzakoak, berezko izaerarik gabeko abeltzaintzakoak, basozaintzakoak eta arrantzakoak, eta ez dira zerga honen egitate zergagarria izango. Ondorio berberetarako, nekazaritza turismoko ostatu zerbitzua ere ez da enpresa iharduratzat hartuko, baldin eta nekazaritza, abeltzaintza edo basozaintzaren iharduera osagarri moduan aitortzen bada.

Apartatu honetan jasotakoaren ondorioetarako, berezko izaerako abeltzaintzatzat hartuko da, hain zuzen, ustialekuan sortu ez diren bazka eta pentzuak jangai nagusi moduan erabiltzen dituzten abere ustiapenen multzoa.

2. Artikulua.

1. Iharduera batean, ondasun edo zerbitzuen ekoizpen edo banaketan parte hartzeko xedez, norbere kabuz ekoizpen eta giza baliabideak antolatzen badira, iharduera hori enpresa, lanbide edo arte jitezkora dela eritziko da.

2. Kargaturiko ihardueren edukina Zergaren tarifetan zehaztuko da.

3. Artikulua.

Kargaturiko ihardueretan aritzea zuzenbidean onargarri den edozein moduz frogatuko da eta, bereziki, Merkataritza Kodeko 3. artikuluan ohartarazten direnen bidez.

4. Artikulua.

² Parrafo hau Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 1996rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen otsailaren 5eko 1/1996 Foru Arauaren 4. xedapen gehigarriak aldatu du, 1996ko otsailaren 13tik aurrerako ondorioekin.

Ondorengo ihardueretan aritzeari ez zaio Zerga honetan egitate zergagarria eritziko:

1. Enpresen aktibo finkokoak izan eta, besterenganatu baino bi urte lehenagotik, ibilgetu horretan behar bezala inbentariaturik egon diren ondasunak besterenganatzea. eta saltzailearen erabilera partikular eta pribatuzko ondasunen salmenta, baldin eta denboraldi berberetan erabili bazituen.
2. Lan pertsonalen edo lanbide zerbitzuen ordain jasotako ekoizkinen salmenta.
3. Establezimendua apaindu edo edertze xede hutsezko artikulua erakustea. Bezeroentzako opari moduko artikulua erakustea, aldiz, Zergari loturik egongo da.
4. Txikizkako salmenta denean, eragiketa bakar bat edo eragiketa isolatua egitea.

II. kapitulua: Salbuespenak

5. Artikulua.^{3 4}

1. Honako hauek salbuesten dira Zergatik:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Gipuzkoako Foru Aldundia, eta udal entitateak, eta, orobat, lurralde administrazio publiko horietako organismo autonomoak nahiz antzeko izaera duten zuzenbide publikoko entitateak.

b)⁵ Beren jarduera hasten duten subjektu pasiboak, jarduera garatzen duten zerga honen lehen bi zergaldietan.

Ondorio horietarako, jarduerari ez zaiola hasierarik eman ulertuko da kasu hauetan:

a') Jarduera batean lehenago beste titularitate batekin aritu denean; zirkunstantzia hori betetzen dela joko da, besteak beste, bategiteak, zatiketak edo jardura adarren ekarpenak egiten badira.

b') Subjektu pasiboa Merkataritza Kodeko 42. artikulua arabera sozietate talde bateko kide denean, non eta ez den taldeko enpresetako batek lehenago garatu gabeko jardura berri bat.

c') Jardura bera egin duten enpresek %25etik gora partizipatua bada.

³ 5. artikulua hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUAren 3. artikulua bat zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).

⁴ Gipuzkoako Lurralde Historikokoaren 2004.urterako aurrekontu orokorrak onartzeari buruzko 2003ko abenduaren 19ko 22/2003 FORU ARAUAren Bosgarren Xedapen Gehigarriak, Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia foru sozietate publikoa, salbuetsita uzten du Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testu bateratuari buruzko apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemaileak araututako Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ondorioetarako, 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera.

⁵ Letra hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAren 6. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

c)⁶ 1.000.000 eurotik beherako negozio-zifra garbia duten subjektu pasiboak.

Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagokienez, salbuespena lurralde espainiarrean establezimendu iraunkor bidez jarduten dutenei bakarrik aplikatuko zaie, betiere haien negozio-zifraren zenbateko garbia 1.000.000 eurotik beherakoa bada.

Edozein kasutan ere, salbuespena aplikatu ahal izateko, ezinbesteko baldintza da letra honetan aipatutako negoziozifraren zenbateko garbia betetzen ez duten enpresek ez izatea %25eko partaidetza edo handiagoa subjektu pasibo horien kapitalean, zuzenean edo zeharka, non eta enpresa horiek ez diren arrisku-kapitaleko fondo edo sozietateak, hain zuzen Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 59. artikuluan aipatuak.

Letra honetan jasotzen den salbuespena aplikatzeko, erregela hauek hartuko dira kontuan:

1.a Subjektu pasiboaren negozio-zifraren zenbateko garbia Merkataritza Kodearen 35. artikuluko 2. apartatuaren bigarren paragrafoan xedatutakoari jarraiki zehaztuko da.

2.a Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, negozio-zifraren zenbateko garbia hauxe izango da, alegia, zerga horien aitorpena zerga honen sortzapena gertatu aurreko urtean aurkeztu beharreko zergaldikoa.

Sozietate zibiletan eta Zergen Foru Arau Orokorak 35. artikuluen 3. apartatuan aipatzen dituen entitateetan, negoziozifraren zenbateko garbia zerga honen sortzapena gertatu aurreko bi urte lehenagokoa izango da.

Zergaldia urte naturala baino laburragoa izan bada, negozio-zifraren zenbateko garbia urtebeterra eramango da.

3.a Negozio-zifraren zenbateko garbia kalkulatzeko, subjektu pasiboak egindako jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.

Entitatea sozietate talde bateko kide bada Merkataritza Kodeak 42. artikuluan jasotakoaren arabera, adierazitako magnitudeak talde horretako entitate guztiei buruzkoak izango dira.

4.a Subjektu pasiboak Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunak badira, lurralde espainiarrean dituzten establezimendu iraunkor guztiengatik egotzi beharrekoa izando da negozio-zifraren zenbateko garbia.

d) Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileak eta indarrean dagoen legeriaren arabera eratutako gizarte aurreikuspeneko mutualitateak.

e) Ikerkuntzako organismo publikoak, maila guztietako irakaskuntza zentroak, Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Foru Aldundiaren edo udal entitateen fondoekin nahiz ongintzazkoak edo herri onurakoak izendatutako fundazioen baliabideekin osorik finantzatuak, eta, orobat, irabazi asmorik

⁶ Letra hau 2012ko abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUAREN 11. artikulua aldatu du. Aipatu foru arauak zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarri zen indarrean (2012-12-28ko GAO). Aldaketak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

gabekoak izanik, hezkuntza-itunen erregimenean dauden ikastetxeak, beren maila guztietan, baita euren ikasleei liburu edo artikulua eman edo mantenu erdia zein barnetegia eskaintzen dizkietenean ere, nahiz eta salbuespenez baino ez, irakasteko erabilitako tailerretan lortutako produktuak establezimenduan bertan saltzen diren, baldin eta salmentaren zenbatekoa, ezein partikular edo hirugarren batentzat erabilgarria izan gabe, soil-soilik lehengaiak erosi edo establezimenduari eusteko erabiltzen bada.

f) Gutxitu fisiko, psikiko eta sentsorialen irabazi asmorik gabeko elkarte eta fundazioak, pertsona minusbaliatuen alde irakaskuntza, hezkuntza, birgaikuntza eta tutoretza mailan egiten dituzten pedagogia, zientzia, laguntza eta enplegu jarduerengatik, baita xede horietara zuzendutako tailerretan lortutako produktuak saltzen badituzte ere, baldin eta salmenta horren zenbatekoa, ezein partikular edo hirugarren batentzat erabilgarria izan gabe, soil-soilik lehengaiak erosi edo establezimenduari eusteko erabiltzen bada.

g) Martxoaren 24ko 5/1995 Foru Arauak, ekimen pribatuari interes orokorreko jardueretan parte hartzeagatik zerga pizgarriak ematekoak, jasotakoaren arabera, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergen salbuespenaren zerga onura aitortua duten entitateak.

h) Elkarteen Erregistroan inskribatutako irabazi asmorik gabeko elkarteak, baldin eta udalarekin batera lankidetzat jarduerak burutzeagatik bertako organo eskudunak herri onurakoak izendatu baditu.

Salbuespena elkarte horien berezko zeregin diren eta gutxieneko udal kuotarekin zergapetzen diren jarduerari aplikatuko zaie.

i) Salbuespena nazioarteko itun edo hitzarmenen indarrez aplikagarri duten subjektu pasiboak.

2. Artikulu honen 1 apartatuko b) e), f) eta h) letretan jasotzen diren salbuespenek erreguzko izaera izango dute, eta interesatuak eskatuta emango dira, hala badagokio.

III. kapitulua: Sujetu Pasiboa

6. Artikulua.⁷

Pertsona fisiko edo juridikoak eta Zergen Foru Arau Orokorreko 35. artikulua 3 apartatuan aipatzen diren entitateak izango dira zergaren subjektu pasibo, baldin eta zerga-gaiaren sorburu diren jardueretako edozein Gipuzkoan egiten badute.

IV. kapitulua: Zerga Kuota

7. Artikulua.⁸

⁷ Artikulu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako hamaikagarren xedapenaren 2 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

⁸ 7.artikulu hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUaren 3.artikulua bi zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25koa).

Zerga kuota Zergaren tarifak foru arau honetan eta berau osatu eta garatzen duten xedapenetan jasotakoari jarraiki aplikatzen eta, kasua balitz, foru arau honen 11. artikuluan aurreikusitako koefizienteak eta indizea nahiz foru arauetan ezarri, udalek erabaki eta ordenantza fiskaletan arautzen diren hobariak aplikatzen aterako da.

8. Artikulua.

1. Foru Aldundiak foru erreargua ezarri ahal izango du Ekonomi Ihardueren gaineko Zergan.

2.⁹Aipatutako foru erreargua Zergaren araudian jasota dauden kasu eta subjektu pasibo berberei exijituko zaie, eta portzentaje bakarra izango da beti, foru arau honen 11.1 artikuluan aipatutako ponderazio koefizienteak aplikatzeagatik aldatutako gutxieneko udal kuotei ezarriko zaiena. Bere tasa ez da inoiz 100eko 40koa baino handiagoa izango.

3. Errearguaren kudeaketa, zergaren kudeaketa bere gain duen entitateak egingo du, zergarenarekin batera egin ere.

4. Foru errearguaren bilketa, Lurralde Historikoaren berezko baliapidetzat hartuko da eta Gipuzkoako Foru Ogasunean egingo da dirusarrera, erregelamenduz zehaztuko diren baldintza eta epeetan.

9. Artikulua.

1. Zergaren tarifak, gutxienezko kuotak finkatuko dituztenak, eta horien aplikaziorako instrukzioa foru arau honetako I eta II eraskinetan, hurrenez hurren, azaltzen dira.

2.¹⁰ Foru arau honen 15.1 artikuluan xedatutakoa hala izanik ere, Foru Aldundiari dagokio Zergaren tarifetan finkatzen diren kuota probintzial eta bereziak ordainaraztea, eta azken hauek izango dira jarduera probintzia batean baino gehiagotan egiteko ahalmena emango dutenak.

Adierazitako kuota probintzial eta berezi horiei ezin izango zaie aplikatu ez foru arau honen 8. artikuluan araututako foru erreargua, ez eta foru arau honek 11. artikuluan 2 eta 3 apartatueta hurrenez hurren aipatzen dituen koefiziente bakarra edo kokapen indizea ere.

10. Artikulua.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko foru arauak aldatu ahal izango dituzte Zergaren tarifak, eta bertan finkaturiko kuotak eguneratu ere.

⁹ 2.apartatu hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUAren 3.artikuluaren hiru zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).

¹⁰ 2.apartatu hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUAren 3.artikuluaren lau zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).

11. Artikulua.¹¹

1.¹² Udalek ahalmena dute Zergaren Tarifetan finkatuta dauden gutxieneko udal kuotak gehitzeko, ponderazio koefiziente bat aplikatuta. Koefiziente hori zehaztuko da subjektu pasiboak izan duen negozio-zifraren zenbateko garbiaren arabera.

Zergaren tarifetan finkatuta dauden kuota probintzialei eta estatuko kuota bereziei, ondoko paragrafoan aipatzen den taulatik ateratzen den ponderazio koefizientea aplikatuko zaie beti.

Koefiziente hori taula honen arabera zehaztuko da:

Negozio-zifraren zenbateko garbia (eurotan)	Koefizientea
1.000.000,00 eta 5.000.000,00 euro bitartean	1,29
5.000.000,01 eta 10.000.000,00 euro bitartean	1,30
10.000.000,01 eta 50.000.000,00 euro bitartean	1,32
50.000.000,01 eta 100.000.000,00 euro bitartean	1,33
100.000.000,00 euro baino gehiago	1,35
Eragiketa bolumenik gabe	1,31

Apartatu honetan aipatzen den koefizientea aplikatzearen ondorioetarako, negozio-zifraren zenbateko garbia subjektu pasiboak egindako jarduera ekonomiko guztiei dagokiena izango da, eta foru arau honek 5.1.c) artikuluan dioenaren arabera kalkulatu da.

2. Zergaren Tarifetan finkatutako gutxieneko kuotak edo, kasua balitz, aurreko apartatuan esandako koefizientea aplikatzeagatik aldatutako kuotak udalek gehitu ahal izango dituzte udalerri bakoitzean egindako jarduera guztietarako balioko duen koefiziente bakar bat haien gainean aplikatuz. Koefiziente hori ezingo da izan 0,8 baino txikiagoa, ezta 2,2 baino handiagoa ere.

3. Aurreko apartatuetan arautzen diren koefizienteaz gain, udalek indize-eskala bat ezarri ahal izango dute gutxieneko kuoten gainean edo, kasua balitz, lehen esandako koefizienteak aplikatuta aldatutako kuoten gainean, eta eskala horrek lokalak udalerriaren barruan duen kokapen fisikoa ponderatuko du, kokatuta dagoen kalearen kategoria kontuan hartuz. Eskala horren gutxieneko indizea ezingo da 0,5etik beherakoa izan, eta gehienezko indizea ez da inoiz 2tik gorakoa izango.

Indize-eskala hori finkatzen ez den udalerrietan, 0,5eko indizea aplikatuko da beti.

¹¹ 11.artikulu hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUAren 3.artikuluaren bost zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).

¹² Apartatu hau udal zergen esparruan zenbait aldaketa sartzen dituen uztailaren 4ko 4/2012 FORU ARAUAren 2. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2012-07-10eko GAO).

12. Artikulua.¹³

1. Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriek honako hobariak egin ahal izango dituzte:

a) Maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauak, Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzkoak, kooperatibei, horien elkarte, federazio eta konfederazioei eta eraldaketarako nekazaritza sozietateei aplikatzeko jasotzen duen hobaria.

b) Kuotaren 100eko 50era bitarteko hobaria, jarduera garatu den bigarren zergaldia amaitu ondorengo lehen bost urteetan, edozein jarduera ekonomiko hasi eta gutxieneko udal kuota ordaintzen dutenentzat.

Hobaria aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da jarduera ekonomikoan lehenago beste titularitate batekin aritu ez izana. Jarduera ekonomikoan lehenago beste titularitate batekin aritu dela ulertuko da, besteak beste, bategiteak, zatiketak edo jarduera adarren ekarpenak egiten direnean.

Hobaria aplikatzeko epea foru arau honen 5.1.b) artikuluan jasotzen den salbuespena amaitu eta bost urte igaro ondoren iraungiko da.

c) Kuotaren 100eko 50era bitarteko hobaria enplegua sortzen duten subjektu pasiboentzat, baldin eta udal kuota ordaintzeaz gainera, hobaria aplikatu aurreko lehen zergaldian kontratu mugagabea duten langile kopuruaren batez bestekoa aurreko zergaldiaren aldean gehitu badute.

Ordenantza fiskalak hobari portzentaje desberdinak ezarri ahal izango ditu kontratu mugagabea duten langile kopuruaren batez besteko gehikuntza aintzat harturik, baina beti ere aurreko paragrafoan finkatu den gehienezko muga gainditu gabe.

d) Kuotaren 100eko 50era bitarteko hobaria, udal kuota ordaintzen duten subjektu pasiboentzat, baldintza hauek betetzen dituztenean:

- Energia erabili edo ekoiztea energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioetatik edo kogenerazio sistemetatik abiatuta.

Ondorio horietarako, energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak Energia Berriztagarriak Sustatzeko Planean jaso eta halakotzat definitzen direnak dira. Kogenerazio sistemak, elektrizitatea eta energia termiko erabilgarria aldi berean ekoizteko balio duten ekipo edo instalazioak dira.

- Beren industri jarduerak udalerriko gunen jendeztatuenetik urrun dauden lokal edo instalazioetan egitea, dela jarduera hasten dutenetik, dela jarduera tokiz aldatzen dutenean.

- Langileei zuzendutako garraio plan bat ezartzea lanpostura joateak dakarren energia kontsumoa eta sortutako isuriak murrizteko, eta garraibiderik eraginkorrenen erabilpena, garraio publikoarena edo partekatuarena kasu, sustatzeko.

¹³ 12.artikulu hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUAREN 3.artikuluaren sei zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).

e) Kuotaren 100eko 50era bitarteko hobaria, subjektu pasiboek gutxieneko udal kuota ordaintzen dutenean eta hobaria aplikatu aurreko lehen zergaldian jardueratik lortu duten errenta edo etekin garbia negatiboa edo ordenantza fiskalak ezartzen duen zenbatekoa baino txikiagoa denean. Ordenantza fiskal horrek hobari portzentaje eta muga desberdinak finkatu ahal izango ditu egindako jarduera ekonomikoa zergaren tarifatako zein multzo, sail edo taldetan sailkatuta dagoen kontuan izanik.

2. Aurreko 1 apartatuko b) letran aurreikusten den hobaria zerga kuotari aplikatuko zaio beti, eta kuota hori ondoko hauek osatuko dute: tarifaren kuotak eta, hala badagokio, foru arau honen 11. artikuluan jasotako koefizienteak eta indizea aplikatzeagatik aldatutakoak. Aurreko 1 apartatuko a) letran aipatu den hobaria aplikagarri gertatzen bada, aurreko apartatuko b) letrako hobaria aurreko 1 apartatuko a) letran aipatutako hobaria aplikatzeatik ateratzen den kuotari aplikatuko zaio.

Aurreko 1 apartatuko a) eta b) letretan aipatzen diren hobariak aplikatzea bidezkoa bada, hortik ateratzen den kuotari aurreko 1 apartatuko c) letran jasotako hobaria aplikatuko zaio.

Aurreko 1 apartatuko a), b) eta c) letretan aipatzen diren hobariak aplikatzea bidezkoa bada, hortik ateratzen den kuotari aurreko 1 apartatuko d) letran jasotako hobaria aplikatuko zaio.

Aurreko 1 apartatuko a), b), c) eta d) letretan aipatzen diren hobariak aplikatzea bidezkoa bada, hortik ateratzen den kuotari aurreko 1 apartatuko e) letran jasotako hobaria aplikatuko zaio.

3. Aurreko 1 eta 2 apartatuetan xedatutakoarekin zer ikusirik duten gainerako alderdi sustantibo eta formalak dagokion ordenantza fiskalak zehaztuko ditu.

Besteak beste, ordenantza fiskalak ezarri ahal izango du hobari horiek guztiak edo horietako batzuk aldi berean aplika daitezkeen edo ez.

V. kapitulua: Ezarraldia eta Sortzapena

13. Artikulua.

1. Ezarraldia bat dator urte naturalarekin, alta aitortpenak direnetan salbu, kasu horretan kuoten kalkulua ihardueraren hasiera egunetik urte naturalaren bukaerarainokoa izango baita, artikulua honen 3. zenbakian jarritakoaren kaltetan gabe.

2. Zergaren sortzapena ezarraldiko lehenengo egunean gertatzen da, eta kuotak murriztezinak izango dira, alta aitortpenen kasuetan ihardueraren hasiera eguna urte naturalarekin bat ez datorrenean salbu, kasu horretan kuoten kalkulua ihardueraren hasiera egunetik abenduaren 31arteko hilabete kopuruaren proportzioan egingo baita.

3. Baja aitortpenen kasuan, urtarrilaren 1etik baja aitortpena aurkezten den egunerartekoa izango da zergaldia. Balizko horretan, zergaldiaren lehen egunean sortuko da Zerga, eta urtarrilaren 1etik baja aitortpena aurkezten den egunera bitartean dauden hiruhilabete kopuruaren proportzioan kalkulatu da kuota.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez da aplikagarri izango iharduerako alta aitortpena eta baja aitortpena urte natural berean gertatzen badira. Balizko horretan, urte bereko abenduaren 31ra aldatuko da bajaren data.

Zerga Administrazioak, ofizioz, Zergaren zentsuetan bidezko izan dadin barne hartze, aldaketa edo baztertzeari ekin abal izango dio, arauz ezar daitezen era eta baldintzetan.

4. Ikuskizunak diren kasuetan, kuotak banakako ihardueretarako finkaturik badaude, horietako bakoitza egiterakoan sortuko da Zerga, beharrezko aitortpenak aurkeztu beharko direlarik erregelamenduz ezarriko den moduan.

VI. kapitulua: Kudeaketa

14. Artikulua.

1.¹⁴ Zerga bere matrikulatik abiatuta kudeatzen da. Matrikula hori urtero egingo da udalerrri bakoitzerako, eta jarduera ekonomikoez, subjektu pasiboez, zerga zorrez eta, kasua balitz, foru errekgargua biltzen dituzten zentsuez osatuta egongo da. Matrikula urtero bidaliko zaie udalei, ordainagiriak kobratu aurretik.

2.¹⁵ Subjektu pasiboek behar diren zentsu aitortpenak aurkeztu beharko dituzte alta hartzeari begira, eta horretarako beharrezko datuak adieraziko dituzte matrikulan sartzearren, aurreko apartatuan adierazitako eran eta erregelamenduz ezarriko den epearen barruan. Horren ondoren, Administrazio eskudunak bidezko likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari jakinaraziko dio dagokion ordainketa egin dezan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, foru arau honek 5.1 artikuluko a), d), g) eta i) letretan aipatzen dituen subjektu pasiboek ez dute altako zentsu aitortpenik aurkeztu beharrik izango.

Era berean, zergapetutako jardueretan aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoren bat gertatzen bada eta horiek zerga honen ondorioetarako garrantzitsuak badira, subjektu pasiboek horien berri eman beharko dute erregelamenduz finkatuko diren epe eta moduetan.

Subjektu pasibo guztiek informazioa eskuratu dezakete jarduera ekonomikoen gaineko zergarekin lotutako gaien inguruan (zerga tasak, hobariak, elementu tributarioak eta kuotak), betiere beraiek egiten dituzten jarduerengatik bada eta jarduera horiek zergaren erroldetan eta matrikulan ageri badira.¹⁶

¹⁴ Apartatu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAren 6. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

¹⁵ 2.apartatu hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUAren 3.artikuluaren zazpi zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).

¹⁶ Azken paragrafo hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 7. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an sartzen da indarrean (2009/1228ko GAO)

3.¹⁷ Zerga Ikuskaritzaren jarduketan edo alta eta jakinarazpen normalizazioaren ondorioz zentsuetan datuak sartzeari, kentzeari edo aldatzeari administrazio egintza iritziko zaio, eta zentsuaren aldaketa ekarriko du. Zentsuetan dauden datuei buruz matrikulan edozein aldaketa egiteko, datuen aldaketa egin beharko da aurretik haietan, ezinbestez. Foru Aldundiak udalei bermatuko die beti haien udalerrietako jarduera ekonomikoen zentsu informazioa eskuratzeko aukera.

4. Zerga hau autolikidazio erregimenean galdatu ahal izango da, erregelamenduz ezarriko den arabera.

14 bis artikulua.¹⁸

1.¹⁹ Foru arau honen 5.1.c) artikuluan aurreikusitako salbuespena aplikatzearen ondorioetarako, honako hau hartuko da kontuan: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek ez badute zerga horien aitorpenik Gipuzkoako Lurralde Historikoan aurkezten, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga kudeatzen duen organo eskudunari komunikazio bat helarazi beharko diote adierazita esandako letrak salbuespena aplikatzeko ezartzen dituen baldintzak bete egiten direla. Obligazio hori aplikagarria izango da, halaber, sozietate zibiletako eta Zergen Foru Arau Orokorrek 35. artikulua 3 apartatuan aipatzen dituen entitateetako bazkide, oinordeko, komunero edo partaideentzat.

Ondorio horietarako, Fiskalitaterako eta Finantzetarako foru diputatuak erabakiko du zein izango den komunikazio horren edukia, eta nola eta zein epetan aurkeztu beharko den, bide telematikoz zein kasutan aurkeztu ahal izango den ere.

2.²⁰ Aurreko apartatuan aipatu diren subjektu pasiboek beren negozio-zifraren zenbateko garbia jakinarazi behar diote Ogasun eta Finantza Departamentuari. Orobat, negozio-zifraren zenbateko garbian gertatzen diren aldaketen berri eman behar dute subjektu pasiboek, baldin eta aldaketa horiek berekin badakarte foru arau honen 5.1.c) artikuluan aurreikusitako salbuespenaren aplikazioa edo ez aplikazioa aldatzea edo foru arau honen 11.1 artikuluan aipatutako ponderazio koefiziente aplikatzeko kontuan hartu behar den tartean aldaketaren bat sartzea. Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakiko du zein kasutan aurkeztu behar diren komunikazio horiek, zein eduki izango duten, eta nola eta zein epetan aurkeztuko diren; era berean, finkatuko du noiz aurkeztu behar diren bide telematikoz.

¹⁷ Apartatu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAren 6. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

¹⁸ 14 bis.artikulu berri hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUAren 3.artikulua 3. artikulua zortzi zenbakiak sartu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25koa).

¹⁹ 1. apartatu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorren amaierako hamaikagarren xedapenaren 3 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

²⁰ Apartatu hau udal zergen esparruan zenbait aldaketa sartzen dituen uztailaren 4ko 4/2012 FORU ARAUAren 2. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2012-07-10eko GAO)

15. Artikulua.²¹

1. Zerga kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmenak, hala borondatezko epean nola premiamenduzko bidean, udalerriko udalari dagozkio.

Hala ere, subjektu pasiboak aurkeztutako alta aitorpenetik ondorioztatzen den likidazioa Foru Aldundiak egingo du.

2. Beren eskumeneko gaitan, udalei dagokie zerga honekin lotutako gaien inguruko errekurso eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak aplikatzea, eta zergadunari laguntzeko eta informatzeko ekintzak aurrera eramatea.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumen osoa da zergaren Matrikula osatu eta gordetzea, jarduera ekonomikoak sailkatzea, kuotak ezartzea eta bidezko ordainagiriak egitea.

Guztiarekin ere, udalek eskumena izango dira jarduerak sailkatzeko eta kuotak ezartzeko, euren ikuskapen jarduketetan oinarrituta.

4. Udalek lankidetzan jardungo dute Foru Aldundiarekin zergaren Matrikula osatu eta gordetzeko, jarduera ekonomikoak sailkatzeko eta bidezko kuotak ezartzeko.

5. Salbuespenak emateko eta ukatzeko, Foru Aldundiaren txosten teknikoa beharko da aldez aurretik, eta hartzen den ebazpena Aldundiari helarazi beharko zaio.

6. Dena den, kuota probintzialak eta bereziak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzea Foru Aldundiari dagokio, udalekin ezar litezkeen lankidetzaren formulak eragotzi gabe.

16. Artikulua.²²

Jarduerak sailkatzeko eta kuotak finkatzeko ekintzen aurka jartzen diren errekurso eta erreklamazioak Zergen Foru Arau Orokorrak 229.etik 246.era bitarteko artikuluetan jasotakoari jarraituz arautuko dira; Gipuzkoako Foru Aldundiak izango du berraztertze errekursoa ebazteko eskumena. Erreklamazio horiek jartzeak ez du etengo egintzen exekuzioa.

17. Artikulua.²³

Foru Aldundiak egingo ditu udal bakoitzari dagokion matrikula. Matrikula Foru Aldundiko zerbitzu eskudunek prestatuko dute urtero, eta Ogasuneko zuzendari nagusiak onartuko du. Udalari bidaliko zaio ordainagiriak kobratzeko aldia iritsi aurretik.

²¹ Artikulu hau udal zergen esparruan zenbait aldaketa sartzen dituen uztailaren 4ko 4/2012 FORU ARAUAren 2. artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2012-07-10eko GAO)

²² Artikulu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako hamaikagarren xedapenaren 4 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

²³ Artikulu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAren 6. artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

18. Artikulua (indargabetua).²⁴

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.

Foru Aldundiari kuota probintzial eta berezien zenbatekoa Gipuzkoako Lurralde Historikoko herrien artean banatzeko erizpideak ezartzeko ahalmena ematen zaio.

Bigarrena.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketa ahalmenen ordezkotza Foru Aldundiari eman ahal izango diote, bidezko hitzarmenaren sinaduraren bitartez.
2. Ordezkotza hitzarmenak eragina sortu behar duten urtea hasi aurretik formalizatuko dira eta beren formalizazioaren hurrengo seihilekoaren barruan argitaratuko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Era berean, aipatutako hitzarmenaren salaketa argitaratuko da.
3. Ordekotza horren indarrez emandako egintzak Zergekiko Foru Arau Orokorrean aurrikusitakoaren arabera inpugnatu ahal izango dira.

Hirugarrena.²⁵

1. Foru Aldundiak zerga honetan sarrera-aitorpenen likidazioengatik nahiz kuota probintzial eta bereziengatik eta, hala dagokionean, udal kuotengatik lortzen duen bilketa likidua zuzenean udalerriari esleituko zaio.
- 2.²⁶ Zergaren udal eta probintzia kuoten eta kuota berezien bilketan Foru Aldundiak emandako zerbitzuaren kostua udalerrri bakoitzari esleitutako bilketa likidotik kenduko da.

Hona hemen zerbitzuaren kostua:

- a) Borondatezko aldian bildutako kopuruen 100eko 2,4koa.
- b) Premiamenduzko bidean biltzen den borondatezko aldiko zerga zorraren 100eko 10ekoa.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

1. Ekonomi Ihardueren gaineko Zerga 1992ko urtarrilaren batetik aurrera hasiko da galdatzen Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan.

²⁴ Artikulu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 6. artikuluko bost apartatuak indargabetu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

²⁵ Hirugarren xedapen gehigarri hau, Gipuzkoako Lurralde Historikorako hainbat zerga neurri onartzen duen otsailaren 12ko 2/2001 Foru Arauaren 7. artikulua gehitzen du. 2001eko otsailaren 17an sartu zen indarrean.

²⁶ Apartatu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 9. Artikuluko Bat Zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

1991ko urtarrilaren 1etik aurrera, udalek Gastu Suntuarioren gaineko Zerga galdatzen jarraitu ahal izango dute, soili-soilik ehiza eta arrantzarako esparruen probetxamendua kargatzen duen Zergaren modalitateari dagokionez. Helburu horretarako, udal erregimeneko gaietarako indarrean dauden ledezko xedapenen Testu Bateratzailea onartu zuen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 372 artikuluko d) modalitateari dagokionez, esandako zerga arautzen duten lege nahiz erregelamendu mailako xedapen guztiak indarrean segitzen dute. Halaber, indarrean segitzen dute aipatu zerga eta modalitatea erregulatzen duten udal ordenantza fiskalak. Zergaren gainerako modalitateak ezabatuta gelditzen dira 1991ko urtarrilaren 1etik aurrera.

2. Ekonomi Ihardueren gaineko Zerga aplikatzen hasten den datan, Merkataritza eta Industria Ihardueren Lizentzia Fiskalean edo Lanbide eta Arte Ihardueren Lizentzia Fiskalean ezein zerga hobariaren jabe direnek, aurrenik aipatutako zergan hobari horiek izaten segituko dute, hobari horiek iraungitu arte eta, eta hobariez baliatzeko epemugarik ez balute, 1994eko abenduaren 31rarte, egun hori barne.

INDARGABETZE XEDAPEN BAKARRA

Honako xedapen hauek indarrrik gabe geratzen dira:

13/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergarena.

Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren aplikazioa hasteari buruzko urriaren 24eko 56/1990 Foru Dekretuko artikulua bakarra.

Premiazko neurri fiskalei buruzko apirilaren 5eko 7/1991 Foru Araueko 11. artikulua.

1/1991 Foru Dekretu Arauemailea, apirilaren 27koa, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Tarifak eta Instrukzioa onartzen dituenak.

Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren zenbait alde arautzen dituen azaroaren 4eko 10/1991 Foru Areueko 1., 2. eta 3. artikulua.

2/1991 Foru Dekretu Arauemailea, Azaroaren 12koa, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Tarifak eta Instrukzioa, abelazkuntzako iharduera independenteari dagozkionak, onartzen dituenak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko araudi fiskala 1992rako Estatuko aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 30eko 31/1991 Legera egokitzen duen otsailaren 18ko 19/1992 Foru Dekretuko 1. artikulua.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko araudi fiskala 1993rako Estatuko aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 29ko 39/1992 Legera egokitzen duen otsailaren 2ko 4/1993 Foru Dekretuko 8. artikuluko bat, bi eta lau atalak.

AZKEN XEDAPENA

Diputatu Kontseiluak aginduko ditu foru arau honetan ezarritako guztia garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko 1993ko aurrekontua onartu zuen otsailaren 17ko 1/1993 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarriak kargu eman zion

Diputatuen Kontseiluari Ekonomi Ihardueren gaineko Zergari buruzko indarreango araudia testu bakar batean jartzeko, aipatu zerga indarrean sartu eta bi hilabeteko epean.

Agindu hori bete asmoz, testu bateratzaile hau egin da, bertan honako indarreango xedapenak jasotzen direlarik: uztailaren 5eko 13/1989 Foru Araua, urriaren 24eko 56/1990 Foru Dekretua, apirilaren 5eko 7/1991 Foru Araua, apirilaren 27ko 1/1991 Foru Dekretu Arauemailea, azaroaren 4eko 10/1991 Foru Araua, azaroaren 12ko 2/1991 Foru Dekretu Arauemailea, otsailaren 18ko 19/1992 Foru Dekretua eta otsailaren 2ko 4/1993 Foru Dekretua.

Hori horrela izanik, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuaren proposamenez, eta 1993ko apirilaren 20ean egindako Diputatuen Kontseiluaren aurre onespenez,

I. ERANSKINA

TARIFAK

LEHEN SEKZIOA

ENPRESA IHARDUERAK: ABELAZKUNTZA, MEHATZE, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA ZERBITZUGUNEAK

0 SAILA: ABELAZKUNTZA INDEPENDIENTEA.

01 Multzoa. Behi-aziendaren ustiapena.

011 TALDEA. BEHI-AZIENDAREN USTIAPENA.

0,967629 euroko kuota buruko.

012 TALDEA. ESNETARAKO BEHI-AZIENDAREN USTIAPEN INTENTSIBOA.

1,929249 euroko kuota buruko.

013 TALDEA. GIZENTZEKO BEHI-AZIENDAREN USTIAPEN INTENTSIBOA.

0,967629 euroko kuota buruko.

01 MULTZO GUZTIARENTZAKO OHARRA: Ustialekuan jaio eta sei hilabeterarteko animaliak ez dira multzo honetako aldeetan zenbatuko eta bere etekina ugalketarako aziendari emanikoaren barruan hartuko da.

02 Multzoa. Ardi eta ahuntz-aziendaren ustiapena.

021 TALDEA. ARDI-AZIENDAREN USTIAPEN INTENTSIBOA.

0,252425 euroko kuota buruko.

022 TALDEA. HAZTEKO ARDI-AZIENDAREN USTIAPEN INTENTSIBOA.

0,312526 euroko kuota buruko.

023 TALDEA. GIZENTZEKO ARDI-AZIENDAREN USTIAPEN INTENTSIBOA.

0,156263 euroko kuota buruko.

024 TALDEA. AHUNTZ-AZIENDAREN USTIAPENA.

0,210354 euroko kuota buruko.

02 MULTZO GUZTIARENTZAKO OHARRA: Ustialekuan jaio eta sei hilabeterarteko animaliak ez dira multzo honetako taldeetan zenbatuko eta bere etekina ugalketarako aziendari emanikoaren barruan hartuko da.

03 Multzoa. Txerri-aziendaren ustiapena.

031 TALDEA. TXERRI-AZIENDAREN USTIAPEN INTENTSIBOA.

0,282476 euroko kuota buruko.

032 TALDEA. HAZTEKO TXERRI-AZIENDAREN USTIAPEN INTENTSIBOA.

0,829397 euroko kuota buruko.

2015/01/01ean eguneratutako testua.

033 TALDEA. GIZENTZEKO TXERRI-AZIENDAREN USTIAPEN INTENTSIBOA.

0,192324 euroko kuota buruko.

03 MULTZO GUZTIARENTZAKO OHARRA: Ustialekuan jaio eta sei hilabeterarteko animaliak ez dira multzo honetako taldeetan zenbatuko eta bere etekina ugalketarako aziendari emanikoaren barruan hartuko da.

04 Multzoa. Hegazti hazkuntza.

041. ARRAUTZATARAKO HEGAZTI HAZKUNTZA.

041.1 Epigrafea. Arrautzatarako ugal-hegaztiak.

0,024040 euroko kuota buruko.

041.2 Epigrafea. Arrautza-erruleak, lau hilabetetik aurrera.

0,012020 euroko kuota buruko.

041 TALDEARENTZAKO OHARRA:

1. Lau hilabeterarteko arrautzatarako oilandak ez dira konputatuko.

2. Talde honetako edozein epigrafetako kuotak ordaintzeak oilandak inkubatu, hazi eta berrazteko ahalmena ematen du, beti ere sujetu pasibo beraren jabetzako arrautzatarako ustialekuetarako badira.

042 TALDEA. HARAGITARAKO HEGAZTI HAZKUNTZA.

042.1 Epigrafea. Haragitarako ugal-hegaztiak.

0,024040 euroko kuota buruko.

042.2 Epigrafea. Haragitarako oilazko eta ahateak.

0,006010 euroko kuota buruko.

042.3 Epigrafea. Ugalketarako indioilo, faisai eta palmipedoak.

0,012020 euroko kuota buruko.

042.4 Epigrafea. Haragitarako indioilo, faisai eta palmipedoak.

0,018030 euroko kuota buruko.

042.5 Epigrafea. Haragitarako galeperrak.

0,006010 euroko kuota buruko.

Oharra: talde honen edozein epigrafetako kuotak ordaintzeak inkubaziorako ahalmena ematen du, betiere hegaztiak subjektu pasiboaren beraren talde honetako ustialekuetara bideratzen badira.²⁷

05 Multzoa. Untxi hazkuntza.

051 TALDEA. UNTXIHAZKUNTZA.

0,108182 euroko kuota ugalketarako buru bakoitzeko.

06 Multzoa BISG beste abelazkuntza ustiapenak.

061 TALDEA. ZALDI-, MANDO- ETA ASTO-AZIENDAREN USTIAPENAK.

0,625053 euroko kuota buruko.

062 TALDEA. ERLAZANTZA.

0,054091 euroko kuota erlauntzako.

069 taldea. BESTELAKO ABELTZAINZA USTIAPENAK.²⁸

66,95 euroko kuota.

Oharra: talde honek multzo honetan zehaztu ez diren abeltzaintza ustiapenak hartzen ditu barne, hala nola, zetar-hazkuntza, larrugintzarako animalien hazkuntza, ehizaren gatibu hazkuntza, laborategiko animalien hazkuntza, barraskiloena, etab.

07 Multzoa. Ustiapen mistoak.

071 TALDEA. USTIAPEN MISTOAK.

Aurreko multzoetako talde eta epigrafeetan aurrikusitakoaren arabera burutzen den iharduera bakoitzari kuota partzial bat dagokio eta horiek batzetik ateratzen den kopurua izango da kuota.

Oharra: Sail honetako 01 eta 06 arteko multzoan sailkaturiko iharduera bat baino gehiago ustialeku berean burutzen dituzten sujetu pasiboak sailkatzen dira talde honetan.

O SAIL GUZTIARENTZAKO OHARRA:

1. Sail honetan sailkaturiko eta ustialeku berean burututako iharduerei dagozkien kuoten zenbateko osoa 37,32 euro baino txikiagoa balitz, sujetu pasiboak 0 kuota ordainduko du.

²⁷ Ohar hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 6. artikuluko sei apartatuak gehitu du. Aipatu foru arauak jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako indorioak ditu (2008-07-11ko GAO).

²⁸ 069 talde hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUaren hirugarren xedapen gehigarriaren a) letrak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. Hala ere, supostu konkretu honek 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak, Foru Arau honen lehen amaierako xedapenak dioen moduan. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).

2. Abelazkuntza iharduera “abelazkuntza integratua” izeneko erregimenean burutzen denean, dagozkion kuotak “abeltzain integratzaile” edo aziendaren jabeak ordainduko ditu.
3. Sail honen ondorioetarako, azienda bazkatzeko belardi edo zelaien probetxamendua duen lursail oso bat osorik edo partzialki edukiaz egiten den ustispena hartuko da estentsibotzat.

1 SAILA. ENERGIA ETA URA.

11 Multzoa. Erregai solidoak erauztea, prestatzea eta aglomeratzea.

111 TALDEA. HARRIKATZA ERAUZTEA, PRESTATZEA ETA AGLOMERATZEA.

111.1 Epigrafea— Harrikatza erauztea, prestatzea eta aglomeratzea, harrikatz azpimundrunatsua ezik.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,271826 euro.

Kw bakoitzeko: 3,828447 euro.

111.2 Epigrafea— Harrikatz azpimundrunatsua (lignito beltza) erauztea, prestatzea eta aglomeratzea

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,271826 euro.

Kw bakoitzeko: 3,828447 euro.

111.1 ETA 111.2 EPIGRAFEI DAGOZKIEN OHARRAK:

1. Elkarren ondoan dauden meatoki, meatze emakida eta meategien arteko zona frankoak, edo elkarte ondoan ez daudela, ustiatze unitatea osatzen baldin badute, hau da, meatoki barruti bat, meatoki edo meatze emakida bakartzat hartuko dira.

2. Nahiz eta urteko lan plangintzan azaldu, baldin benetan ustiapenean egon beharrean meategi barrutiko erreserbak balira, meatoki, meatze emakida edo meategien arteko zona frankoak ez dute zergatik ordaindu behar.

3. Epigrafe hauek baimena ematen dute beste erregai solido batzuk erauzi eta prestatu ahal izateko.

111.3 Epigrafea.— Harrikatz prestaketa, beste lantegi batean edo bestela meatze emakida edo meatokitik kanpo denean.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 5,228805 euro.

Kw bakoitzeko: 9,333718 euro.

Oharra Epigrafe honek baimena ematen du beste lantegi batean beste erregai solido batzuk prestatu ahal izateko.

111.4 Epigrafea.—Harrikatz aglomeratzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 5,974060 euro.

399.6 Epigrafea—Kontrolagailuak, denbora kontugailuak eta erloju mekanismodun antzeko beste zenbait tramankulu.

399.7 Epigrafea—Erloju makina montatuak.

399.8 Epigrafea—Erloju kutxak.

399.9 Epigrafea—Erlojuen eta beste inon sailkatu gabeko instrumentuen akzesorioak, zatiak eta pieza soilak.

4 SAILA. BESTE INDUSTRI MANUFAKTURATZAILE BATZUK.

41 Multzoa. Elikagai eta edari industriak.

411 TALDEA. OLIBOLIOAREN FABRIKAZIO ETA ONTZIRAKETA.

411.1 Epigrafea.—Olibolioaren fabrikazioa eta ontziraketa

Kuota:

Langile bakoitzeko: 17,543543 euro.

Kw bakoitzeko: 10,018872 euro.

411.2 Epigrafea.—Olibolioaren fabrikazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 15,554193 euro.

2015/01/01ean eguneratutako testua.

Kw bakoitzeko: 8,089623 euro.

411.3 Epigrafea.—Olibolioaren ontziraketa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 15,554193 euro.

Kw bakoitzeko: 8,089623 euro.

Talde guztiari dagokion oharra: Talde honetakoak dira olibolioa ateratzearen kondar ekoizkinak.

412 TALDEA. LANDARE ETA ANIMALI OLIO ETA KOIPEAK (OLIBOLIOA EZIK).

412.1 Epigrafea.—Hazi oliokariak eta oliba zapakinen olio ateratzea eta ontziratzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 17,543543 euro.

Kw bakoitzeko: 10,018872 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da kakahueteen, palmaren, palmistearen, soiaeren, ekilorearen, kokoaren, kopraren, koltzaren, intxaurren, sesamo eta kalamu hazien, linaziaren, artuaren, oliba zapakinen, etabarren olio, ehoketa bidez, prentsaketa, solbaketa bidez eta prozedura batzuren bidez ateratzea, hala nola landare bilgorrak, olio opilak eta ateraketa hondakin batzuk ateratzea. Halaber, aipatutako olio eta hondakinak ontziratzea.

412 2 Epigrafea—Itsaskien olio eta koipeak lortzea eta ontziratzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 10,145084 euro.

Kw bakoitzeko: 0,378638 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da ondoren zehaztuko diren itsas animalien olioak eta koipeak lortzea eta ontziratzea, hau da: makailo eta beste arrain mota batzuren gibel eta tripakietako olio; arrainkien olioak, itsas ugaztunen olio eta koipeak (baleak, katxaloteak, zeroiak etab.) hala nola olio eta koipe horiek ateratzeak sortzen dituen hondakinak lortzea.

412.3 Epigrafea.—Landare eta animalia oliokarien birfinketa, hidrogenazio, ontziraketa eta antzeko zenbait tratamendu.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 17,543543 euro.

Kw bakoitzeko: 10,018872 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da landare eta animalien olio eta koipeen arazketa, birfinketa, hidrogenazioa, ontziratzea eta antzeko beste tratamendu batzuk, giza kontsumorako izan ala ez izan.

412.4 Epigrafea—Margarina eta elikadura koipe eta antzekoak lortzea eta ontziratzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 17,543543 euro.

Kw bakoitzeko: 10,018872 euro.

Oharra: Epigrafe honetan margarina, gantz artifizial eta antzeko beste koipeki batzuren lorketa eta ontziraketa (janari prestaketarako nahastuak eta texturatuak, etab.) sartuko da.

413 TALDEA. ABEREEN HILKETA, HARAGI PRESTAKETA ETA KONTSERBAKETA ETA HEGAZTIEN INKUBAKETA.

413.1 Epigrafea—Edozein abere motaren hilketa eta despiezaketa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 12,320748 euro.

Kw bakoitzeko: 11,821908 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko dira edonolako hiltegi baimendutan egiten den abelgorrien, abelauntzen, abelbetzen, abeletxeen eta untxien hilketa eta haragi eta hondakin fresko, hotzitu edo izoztua ateratzea. Era berean, epigrafe honetan sartu da hiltegieta larruazalak, larru odoltsuak eta gazituak, zurdileak, kumak, ileak eta beste azpigai batzuk lortzea (luma, moko, hezur, tripaki, maskuri, tendoiak, odola, etab.); hala nola, hiltegieta erantsitako haragi zatiketarako eta izozketarako gelak. Epigrafekoa izango da baitere bilgor eta gantzak lortzea eta birfintzea.

413.2 Epigrafea—Era guztietako haragikiak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 12,320748 euro.

Kw bakoitzeko 11,821908 euro.

Oharra: Epigrafe honetakoak izango dira lehorreko animalien haragi onduak, gatzunduak, gezaletakoak eta keztatuak, enbutidoak, fianbreak eta antzeko kontserbak fabrikatzea; haragien deshidratazio eta liofilizazioa. ontziraketa hermetiko eta esterilizatuaren bidez egindako haragi kontserbaketa (haien handienean haragia eta ordezkua duten plater prestatuak barne), hala hola estraktoak saldak, jelatinak, pastak, irinak eta haragi edo haragitik erakarritakoen beste preparatu batzuk fabrikatzea. Epigrafe honetan sartuko da baitere plasmaren fabrikazioa.

413.3 Epigrafea—Despiezaketarako gela autonomoak, haragikien azpiproduktoak probetxatzea eta eraldetzea, erabilpen industrialerako edo animalien elikadurarako egiten denean.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 12,320748 euro.

Kw bakoitzeko: 11,821908 euro.

413.4 Epigrafea—Txita jaio berrien inkubazioa eta salmenta, arraultze emankorrak erosi ondoren egiten dena.

Kuota:

1.000 plazako edo jarritako inkubadora multzoaren zati bakoitzeko: 54,932506 euro.

Oharra: Inkubazioa eksklusiboki inoren kontura egiten denean, hau da, inkubazio unitate bakoitzeko ordainketa finko baten bidez egiten denean, kuota epigrafe honetan adierazitakoaren ehuneko 50ekoa izango da.

414 TALDEA. ESNEGAI INDUSTRIAK.

414.1 Epigrafea—.Esnearen prestaketa.

Kuota: Langile bakoitzeko: 18,913851 euro.

Kw bakoitzeko: 20,716887 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da esne pasteurizatua, esterilizatua, homogeneousatua eta antzekoen prestaketa, hala nola, esnearen banaketarako bere ontziraketa prozesua.

Epigrafe honetan sartuko da, era berean, esnegain freskoa, esne hartzitua eta kaseina gordina.

414.2 Epigrafea—Kontserbako esnearen prestaketa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 18,913851 euro.

Kw bakoitzeko: 20,716887 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da esne kondentsatuaren, kontzentratuaren edo lurrinduaren edo esnautsaren prestaketa, hala nola kontserbako esnearen bidez lortutako laktosa, sueroak eta beste esneki batzuk.

414.3 Epigrafea—Gazta eta gurinaren fabrikazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 18,913851 euro.

Kw bakoitzeko: 20,716887 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da gurin natural, gozo eta gaziaren fabrikazioa eta era guztietako gazta egitea (gogorrak, erdigogorrak, bigunak eta fundituak).

414.4 Epigrafea—Izozki eta antzekoen fabrikazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 18,913851 euro.

Kw bakoitzeko: 20,716887 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da esnekiak erabiliz lortzen diren izozki, sorbete eta esne izoztuaren bidez egindako beste produktu batzuk.

415 TALDEA. LANDARE ZUKU ETA KONTSERBEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 10,451600 euro.

Kw bakoitzeko: 6,472900 euro.

Oharra: Talde honetan sartuko da fruta eta barazkiak ontziraketa hermetiko eta esterilizatuaren bidez kontserbatzea (barazkietan oinarritzen diren plater preparatuak barne); fruten mami eta oreka fabrikatzea; gozokariak, marmeladak eta jaleak prestatzea; landare extraktuak eta zukuak egitea; oliuben aderezo eta betekinak eta era guztietako landarekiak ontzea eta kontserbatzea deshidratazio, izozketa eta liofilizazio bidez. Ozpinetako oliotako, gezaletako, azido azetikoko, alkoholetako, etabarretako kontserbak ere epigrafe honetakoak izango dira, hala nola fruta eta beste landareki batzuren garbiketa, sailkaketa eta ontziraketa.

Era berean, taldekoak izango dira baitere mahaspaxak eta fruitu lehorren elaborazioa.

Argibide gisa baizik ez, subjektu pasiboak ondorengo epigrafeetako sailkapenaren arabera burutzen dituen iharduketak aitortuko ditu:

415.1 Epigrafea.—Landareki kontserbak.

415.2 Epigrafea.—Extraktuak, zukuak eta beste landareki batzuk.

415.3 Epigrafea.—Fruta eta beste landareki batzuren garbiketa, sailkapena, eta ontziraketa.

416 TALDEA. ARRAIN ETA BESTE ITSASKI BATZUREN KONTSERBAKETA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,171024 euro.

Kw bakoitzeko: 2,241775 euro.

Oharra: Talde honetan ondorengoak sartuko dira: arrainen, oskoldunen, etabarren kontserbaketa azkarra; oniziraketa eta esterilizaketa bidezko kontserbaketa (oliotan, eskabetxean, naturalean, saltsetan edota kontserbaren osakin nagusia arraina den plater preparatuetan); salazoiak eta eskabetxeak prestatzea; arrainen lehorketa, prentsaketa, etabar, hala nola, beste itsaski mota batzuren prestaketa eta kontserbaketa, era berean epigrafe honetakoak izango dira baita ere ibai arraien prestaketa eta kontserbaketa (kabiarra, esturio arbiak, igelak, izokinak, arrabak, etab.).

Talde honetan sartuko da beste iharduketekin batera arrantzara dedikatzen ez diren itsasuntzi faktorien iharduketa.

Argibide gisa baizik ez, subjektu pasiboak ondorengo epigrafeetako sailkapenaren arabera burutzen dituen iharduketak aitortuko ditu:

416.1 Epigrafea.—Arraien eta beste itsaski batzuren kontserbaketa.

416.2 Epigrafea.—Arrainen eta beste itsaski batzuren prestaketa eta kontserbaketatik eratorritako hondakin ekoizketa.

417 TALDEA ERROTAGAIEN FABRIKAZIOA.

417.1 Epigrafea.—Irinak eta semolak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,100273 euro.

Kw bakoitzeko: 10,145084 euro.

Oharra: Epigrafe honetakoak izango dira ogitarako irinak, irin industrialak eta semolak, hala nola fabrikazioan erabilitako zituen ehoketatik ateratako hondakinak.

417.2 Epigrafea.—Beste errotagai batzuren fabrikazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,158054 euro.

Kw bakoitzeko 12,134434 euro.

Oharra: Pureak eta arrozaren desoskolketa, garbiketa eta satinaketa (arroz errotak); leguminatsuen, sustraien eta beste ekoizkin lehor batzuren desoskolketa, garbiketa, zuriketa, etab. (kafeari oskola kentzeko errotak barne).

418 TALDEA. ELIKADURA PASTA ETA ALMIDOIGAIEN FABRIKAZIOA.

418.1 Epigrafea.—Elikakura pasten fabrikazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 11,882009 euro.

Kw bakoitzeko: 7,716995 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da makarroi, tailarin, fideo eta zopa oreak, hala nola ore egosiak eta beteak fabrikatzea.

418.2 Epigrafea.—Almidoigaien fabrikazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 11,882009 euro.

Kw bakoitzeko: 7,716995 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da arto, gari eta beste zekale batzuren almidoiak eta fekulak fabrikatzea; patata eta beste tuberkulo mota batzuren eta barazkien fekulak fabrikatzea (asgua, mandioka, etab.); glukosa komertzialarena, glukosa soilarena (dextrosa) eta dextrinarena; almidoi eta fekula disolbagarriena edo tostatuena eta glutenaren eta gluten tostatuaren edo tostatu gabearen irina.

419 TALDEA. OGI, OPIL, PASTEL ETA GAILETAGINTZA.

419.1 Epigrafea.—Ogigintza eta opilgintza.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 11,882009 euro.

Kw bakoitzeko: 7,716995 euro.

Oharra: Epigrafe honetakoak da era guztietako ogiaren fabrikazioa, moldekoa, tostaturia, etab, eta opilgintzakoak ere barne direlarik.

419.2 Epigrafea.—Opilgintza, pastelgintza eta gailetagintza.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 11,882009 euro.

Kw bakoitzeko: 7,716995 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da opilak, gailetak, pastelak, tartak, pastak, bizkotxoak, etab. egitea.

419.3 Epigrafea.—Ore frijituen elaboraziorako industria.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 11,882009 euro.

Kw bakoitzeko: 7,716995 euro.

Oharra: Epigrafe honetan ore frijituak (txurrunak, piporropiloak, etab.) eta patata frijituak egitea sartuko da.

42 Multzoa. Beste elikagai batzuren, edarien, eta tabakoaren industria.

420 TALDEA. AZUKREGINTZA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,533002 euro.

Kw bakoitzeko: 4,231125 euro.

Oharra: Talde honetan sartuko dira azukrerremolatxa eta azukre kainaberaren fabrikazioa; azukrearen birfinketa (azukre birfinduak izango dira: azukre solidoa, granulatuak, koadradiloak, azukre hautsa, azukre likidoa eta jarabeak, ezti-hondar birfinduak barne), hala nola ezti kainaberaren fabrikazioa.

Argibide gisa baizik ez, subjektu pasiboak ondorengo epigrafeetako sailkapenaren arabera burutzen dituen iharduketak aitortuko ditu:

420.1 Epigrafea.—Azukreak eta azukre jarabeak.

420.2 Epigrafea.—Azukregintzako hondakinekin egindakoak.

421 TALDEA. KAKAO, TXOKOLATE ETA GOZOGINTZAKO EKOIZKINAK.

421.1 Epigrafea.—Kakao eta txokolategintza.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,843208 euro.

Kw bakoitzeko: 3,545971 euro.

Oharra: Epigrafe honetan gozotu gabeko kakaokinak egitea sartuko da (kakao hautsa, kakao gantzak, estaldura mikatzak eta kakao oskola), era berean epigrafe honetan sartuko da kakao eztitutik eratorritako gaiak elaboratzea (estaldura gozoak, txokolateak, bonboiak eta espezialitateak).

421.2 Epigrafea.—Gozogintza.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,275937 euro.

Kw bakoitzeko: 8,648564 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da turroiak, mazapanak, goxokiak, peladilak, goma maxkagarriak eta beste gozoki (fruta gozotuak, karamelatuak, esentziak, flanak, gorringoak, etab.) batzuren elaborazioa.

422 TALDEA. ABEREEN ELIKAGAIK EKOIZTEKO INDUSTRIA (ARRAIN IRINAK BARNE).

422.1 Epigrafea.—Sorobelar deshidratatuak, eztituak, etab., abere elikaketarako direnean.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 1,869148 euro.

Kw bakoitzeko: 1,244095 euro.

Oharra: Epigrafe honetan alfalfaren eta beste sorobelar batzuren deshidratatuta sartuko da, hala nola artoaren eta beste antzeko landare batzuren lehorteak.

422.2 Epigrafea.—Ongarriak egiteko erabiltzen diren arrain irinak, animalien hondakinak janari hondakinen birziklapen eta eraldaketatik eratorriko produktuak eta beste ekoizkin batzuk.³⁴

Kuota:

Langile bakoitzeko: 1,869148 euro.

Kw bakoitzeko: 1,244095 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da arrainen, hezurren eta beste animali sustantzien edo barazkien irinak egitea, animalien elikadura bezala erabiltzeko edo animalien elikadurak prestatzeko direnean.

422.3 Epigrafea.—Edozein motatako ongarri konposatuak fabrikatzea, 422.4 epigrafean adierazitakoak salbu.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,971740 euro.

Kw bakoitzeko: 3,732285 euro.

422.4 Epigrafea.—Txakur, katu eta etxeko beste animalientzako ongarri konposatuak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,708665 euro.

Kw bakoitzeko: 4,669864 euro.

423 TALDEA. ZENBAIT ELIKAGAIEN ELABORAZIOA.

423.1 Epigrafea.—Kafearen, tearen eta kafe ordean elaborazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 12,693376 euro.

Kw bakoitzeko: 15,926821 euro.

³⁴ Epigrafe hau otsailaren 1eko 3/1994 Foru Dekretuaren 13. artikulua aldatu du. Foru dekretu horrek Estatuaren 1994rako Aurrekontu Orokorre buruzko abenduaren 29ko 21/1993 Legea eta neurri fiskalak eman, funtzio publikoaren erregimena eraberritu eta langabeziaren aurka babesteko abenduaren 29ko 22/1993 Legan jasotako neurri fiskaletara egokitzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia. 1994ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak sortzen ditu.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da kafearen tostaketa, kafe solbagarrien elaborazioa, deskafeinatua, kafe extraktoena eta kafe ordeena (atxikoriak, etab.), hala nola infusioetarako te, mate, kamamila eta beste belar batzuk eta espezie lurrintsuak elaboratzea.

423.2 Epigrafea.—Zopa prestatuak, extraktoak eta ongailuak elaboratzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,656894 euro.

Kw bakoitzeko: 9,580133 euro.

Oharra: Epigrafe honetan ondorengo gaien elaborazioa ere sartuko da: zopa prestatuak, salda kontzentratuak eta beste extrakto batzuk, mahairako gatz mehea, pimentoia, azafraila, mostaza, maionesa saltsa eta beste saltsa prestatu batzuk, ardo edo sagardoarenak ez diren mahaiko ozpinak barne.

423.3 Epigrafea.—Dietetika eta errejimen ekoizkinak.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,656894 euro.

Kw bakoitzeko: 9,580133 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko dira dietetika gaiak elaboratzea, haur eta errejimen elikadurarako direnean, hau da, haurrentzako esneki bereziak edo errejimenetan erabiltzekoak, irin irradiatuak eta bitaminak, hala nola laborez irinez fekulaz, almidoiez, etabarrez egindako haur elikagaiak edo dietetikoak.

423.9 Epigrafea.—B.i.s.g.ko elikagaien elaborazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko 7,656894 euro.

Kw bakoitzeko: 9,580133 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko dira beste epigrafe batzutan sartu ez diren elikagaien elaborazioa, hau da, ogigintzarako legamiak fabrikatzea; izotz naturalaren bilketa; arraultz zuringo eta gorringoak lehortzea eta banantzea; arraultz hautsaren prestaketa; esnerik gabeko izozki eta sorbeteak prestatzea; aurrez prestatutako plateren prestaketa (kontserbatuak ezik); patata frijituak, krispetak eta antzekoak prestatzea; flanak, izozkiak, sukaldeko gozokiak, etabar, prestatzea.

424 TALDEA. ALKOHOL ETILIKO HARTZIEN INDUSTRIA.

424.1 Epigrafea.—Alkoholaren destilazio eta errektifikazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 15,494092 euro.

Kw bakoitzeko: 13,066003 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da landagaien (erremolatxa, kainabera, fruta, labore, etab.) hertziketarik eratorritako alkohol etiliko gordinaren destilazio eta errektifikazioa.

424.2 Epigrafea.—Patxar naturalak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 15,494092 euro.

Kw bakoitzeko: 13,066003 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da erremolatxa, kainabera, fruta, labore, etabarren hertziketarik sortutako patxar naturalak izenez ezagutzen direnen destilaketa.

424.3 Epigrafea.—Patxar konposatuak, likoreak eta ardotik atera ez diren beste zenbait aperitibo.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 39,937254 euro.

Kw bakoitzeko: 32,472684 euro.

Oharra: Epigrafe honetakoa izango da brandy, rona, ginebra, vodka, whisky, anisdun edariak, pontxeak, ardodoxoak eta beste patxar konposatu batzuk, likore eta dasta edariak ardotik eratorriak ez direnak elaboratzea, hala nola elaborazioarekin batera egiten den botelaratzea.

425 TALDEA. ARDOGINTZA.

425.1 Epigrafea.—Ardogintza eta ardoaren umaketa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 19,160266 euro.

Kw bakoitzeko: 13,751157 euro.

Oharrak:

1º Epigrafe honetan sartuko da muztioak lortzea (naturalak, kontzentratuak, ahulak eta indargeak), mistelak elaboratzea, mahairako ardoak elaboratzea eta apargabeko ardoen umaketa eta kontserba.

Era berean epigrafe honetan sartuko da ardoa errefrijeratzea eta gaseztatzea eta elaborazioarekin batera egiten den botelaratzea.

2º Subjektu pasiboak ardoa bere uztako eta berak bakarrik eta bere kontura egiten duenean, kuota epigrafe honetan adierazitakoaren %25a ordainduko du.

425.2 Epigrafea.—Apar ardoen elaborazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 22,333610 euro.

Kw bakoitzeko: 15,986922 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da kaba eta beste apar ardo natural batzuren elaborazioa, hala nola elaborazioarekin batera egiten den boteilaratzea.

425.3 Epigrafea.—Ardo berezien elaborazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 22,333610 euro.

Kw bakoitzeko: 15,986922 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da ardo berezien elaborazioa, hau da, fruta ardoak, txakolinak, ardo goxoak, nobleak, onduak, likoretsuak, kinatuak, lurrinduak, medizinalak, bermutak eta ardoz egindako beste edari dastagarri batzuk, hala nola elaborazioarekin batera egiten den boteilaratzea.

425.9 Epigrafea.—B.i.s.g.ko ardo industriak.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 15,055353 euro.

Kw bakoitzeko: 9,147404 euro.

Oharra: Epigrafe honetan ardogintzako beste ekoizkin batzuk sartuko dira, hau da, ardo ozpinak ateratzea eta ardo hondakinen probetxamendua (haziak, piketak, zapakinak, etab.), hala nola elaborazioarekin batera egiten den boteilaratzea.

426 TALDEA. SAGARDOGINTZA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 34,648348 euro.

Kw bakoitzeko: 11,323068 euro.

Oharra: Talde honetan sartuko da sagardo naturala, apardun eta gasdun sagardoak egitea; sagardo ozpinak egitea eta beste fruta hartzi batzurekin egindako ozpinak egitea (madari sagardoa, sakia, palmardoa, ardoeztia, jinjibrea, etab.), hala nola ardo mota horien elaborazioarekin batera egiten den boteilaratzea. Era berean, epigrafe honetakoak izango dira, sagardoaren dastaketa eta sagardotegietako elikadura zerbitzuak, urtarrila apirila bitartean ematen direnean.

Subjektu pasiboak ardoa bere uztako eta berak bakarrik eta bere kontura egiten duenean, kuota epigrafe honetan adierazitakoaren %25a ordainduko du.

Argibide gisa baizik ez, subjektu pasiboak ondorengo epigrafeetako sailkapenaren arabera burutzen dituen iharduketak aitortuko ditu:

426.1 Epigrafea.—Sagardoa eta antzeko beste edari hertzi batzuk.

426.2 Epigrafea.—Sagardo hondarrekin egindako ekoizkinak.

427 TALDEA. GARAGARDOA ETA GARAGARDO MALTA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,530682 euro.

Kw bakoitzeko: 9,459931 euro.

Oharra: Talde honetan sartuko da garagardo maltaren fabrikazioa, hala nola garagardo arrunta, argia, beltza, gogorra eta beste garagardo mota batzuk bezalako garagardo malteatuak fabrikatzea; garagardoaren fabrikazioaren ondorengo azpiproduktuak lortzea (garagarra, lupulua, kondarrak, etab.) lortzea, hala nola garagardoaren fabrikazioarekin batera egiten den boteilaratzea.

Argibide gisa baizik ez, subjektu pasiboak ondorengo epigrafeetako sailkapenaren arabera burutzen dituen iharduketak aitortuko ditu:

427.1 Epigrafea.—Garagardoa eta garagardo malta

427.2 Epigrafea.—Garagardoaren fabrikaziotik ateratzen diren azpiproduktuak eta hondarrak.

428 TALDEA. METALUR NATURALAK, GASDUN URAK ETA BESTE EDARI ALKOHOLGABE BATZUK.

428.1 Epigrafea.—Metalur naturalen prestaketa eta ontziriketa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 22,393711 euro.

Kw bakoitzeko: 27,995144 euro.

Oharra: Epigrafe honetan metalur naturalak iturri edo iturburuetan bertan prestatzea (gasa ematea, etab.) sartuko da.

428.2 Epigrafea.—Gasdun uren eta beste edari alkoholgabeen fabrikazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 29,113026 euro.

Kw bakoitzeko: 23,764019 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da gasdun urak, soda, seltza, etab. fabrikatzea; fruta zukuekin egindako edariak, landare guneekin egindakoak, etabarrekin egindakoak; limonadak, laranjada, kolak, ortxatak, etab.; hala nola, fabrikazioarekin batera agiten den boteilaratzea.

Epigrafe honetan sartuko da aipatu edarien fabrikaziorako erabiltzen diren hauts, jarabe, kontzentratuak eta baseak elaboratzea.

429 TALDEA. TABAKOGINTZA.

429.1 Epigrafea—Zigarroak eta zigarrotxoak eta beste tabakogai batzuk elaboratzea

Kuota:

Langile bakoitzeko: 27,995144 euro.

Kw bakoitzeko: 30,357121 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da tabakoaren eraldaketa prozedura osoa, hasi uztan jasotako hostoekin, hosto lehorketa, desnerbaketa, xehetzea, piparako prestatzea, maskatzeko, sudurrautsa, tabako guneak, esentziak, etabarretaraino.

429.2 Epigrafea—Tabakoaren lehen eraldaketa, zigarroak eta zigarrotxoak, xeheketa, etab. egiteke.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,856178 euro.

Kw bakoitzeko: 1,742935 euro.

43 Multzoa Oihalgintza.

431. TALDEA. KOTOI ETA KOTOIGAIK.

431.1 Epigrafea.—Kotoi zuntzak prestatzea (desileztaketa, gardanketa, orrazketa).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 3,113243 euro.

Kw bakoitzeko: 2,987030 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da kotoi zuntzak desileztaketa, sailkaketa, gardanketa, orrazketa, etabarren bidez prestatzea.

431.2 Epigrafea—Kotoi eta kotoigaien irunketa eta bihurketa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,301876 euro.

Kw bakoitzeko: 2,055461 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da kotoia eta kotoigaiak zuntz artifizialekin eta beste zuntz mota batzurekin egindako nahasketak iruntzea eta bihurtzea.

431.3 Epigrafea—Kotoi oihalak eta kotoi nahastuak.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 1,869148 euro.

Kw bakoitzeko: 5,541332 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartuko da kotoiaren eta kotoia zuntz artifizialekin eta beste zuntz batzurekin nahastea.

432 TALDEA. ARTILEA ETA BERE NAHASKIEN INDUSTRIA.

432.1 Epigrafea.—Artile zuntzen prestakuntza (sailkapena, garbiketa, ilaztea eta orraztea).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,241775 euro.

Kw bakoitzeko: 1,123893 euro.

Oharra: Epigrafe honek, sailkatze, zozketa, garbitze, ilazte, ikazte, orrazte, etabar, lanen bidezko artile zuntzen prestakuntza hartzen du.

432.2 Epigrafea.—Artilea eta bere nahaskien irunketa eta bihurketa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,160374 euro.

Kw bakoitzeko: 3,239455 euro.

Oharra: Epigrafe honek, artilea eta bere nahaskiak zuntz artifizial eta beste zuntzekin irutea, bihurtzea eta hariltzea hartzen du.

432.3 Epigrafea—Artilea eta bere nahaskien ehuntzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 5,787747 euro.

Kw bakoitzeko: 7,777097 euro.

Oharra: Epigrafe honek artilea eta bere nahaskiak zuntz artifizial eta beste zuntzekin ehuntzea hartzen du.

433 TALDEA. ZETA NATURAL ETA BERE NAHASKIAK ETA ZUNTZ ARTIFIZIAL ETA SINTETIKOEN INDUSTRIA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,926929 euro.

Kw bakoitzeko: 6,220475 euro.

Oharra: Talde honek, zeta naturalezko zuntzen prestakuntza hartzen du (sailkatzea, ildaskatzea, hijuelaren lorpena, etabar.); halaber, hariak irutea, bihurtzea, ehuntzea eta erregularizatzea, baita, zeta naturala eta bere nahaskiak beste zuntzekin ehuntzea ere.

Talde honek honako hauek ere hartzen ditu: hariak irutea, erregularizatzea eta zuntz artifizial eta sintetikoak ehuntzea nahasi gabe, halaber, zetazko zuntzekin nahasirikoak.

Argibide gisa baizik ez, subjektu pasiboak ondorengo epigrafeetako sailkapenaren arabera burutzen dituen iharduketak aitortuko ditu:

433.1 Epigrafea.—Zeta natural eta bere nahaskien industriaren ekoizkinak.

433.2 Epigrafea.—Zuntz artifizial eta sintetikoak prestatzea, iratea eta ehuntzea.

434 TALDEA. ZUNTZ GOGOR ETA BERE NAHASKIEN INDUSTRIA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,866828 euro.

Kw bakoitzeko: 3,239455 euro.

Oharra: Talde honek honako hauek hartzen ditu: hariak prestatzea (sailkatzea, kordatzea, aletzea, zarazkatze, arrastelatzea, etabar.) irutea, bihurtzea eta erregularizatzea, hala nola, liho, kalamu, espartzu, ramio, jute, kenika, ziza, pita, koko, etabar., zuntzen ehuntzea, eta beste zuntzekin nahasirikoak ere bai.

Argibide gisa baizik ez, subjektu pasiboak ondorengo epigrafeetako sailkapenaren arabera burutzen dituen iharduketak aitortuko ditu:

434.1 Epigrafea.—Irunketarako prestaturiko zuntz gogorrak.

434.2 Epigrafea.—Zuntz gogorren prestaketan ateratako kondar ekoizkinak eta azpiekoizkinak.

434.3 Epigrafea.—Zuntz gogor eta bere nahaskiak irutea eta bihurtzea.

434.4 Epigrafea.—Zuntz gogor eta bere nahaskiak ehuntzea.

435 TALDEA. ARTILE GAIEN FABRIKAZIOA.

435.1 Epigrafea.—Artile gaien piezakako fabrikazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,149724 euro.

Kw bakoitzeko: 11,136754 euro.

Oharra: Epigrafe honek, edozein janzkirentzako artile gaien piezakako fabrikazioa hartzen du, kotoizkoak, artilezkoak, zetazkoak, zuntz artifizialezkoak eta bestelakoak izanik artile gaiak.

435.2 Epigrafea.—Galtzerdigintza.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,149724 euro.

Kw bakoitzeko: 11,136754 euro.

Oharra: Epigrafe honek, andreen galtzerdiak (ortopedikoak ezik), galtzerdiak eta edozein motatako antzeko jantzigintza hartzen du, emakumezko zein gizonezko zein haurrentzako direnak.

435.3 Epigrafea.—Azpiko janzkiak eta lotarako puntuzko arroparen fabrikazioa

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,149724 euro.

Kw bakoitzeko: 11,136754 euro.

Oharra: Epigrafe honek, hariz egindako hauen fabrikazioa hartzen du: emakumezko, gizonezko eta haurrentzako azpiko janzkiak eta lotarako puntuzko arropa, esatebatera, barrengolastikoa, slipsak, kortseteria, azpiko gona, bata, pijamak, peieleak, etabar.

435.4 Epigrafea.—Puntuzko kanpo jantzigintza.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,149724 euro.

Kw bakoitzeko: 11,136754 euro.

Oharra: Epigrafe honek hariz egindako hauen fabrikazioa hartzen du: emakumezko, gizonezko eta haurrentzako puntuzko kanpo janzkiak, esatebatera, jertseak, jakak, soinekoak, konjuntioak, galtzak, alkandorak, haur arropa, bainu eta kirol jantziak, guanteak, gorbatak, txapelak, kapelak, bufandak, etabar.

436 TALDEA. EHUNGAIEN AZKEN UKITUAK.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,231125 euro.

Kw bakoitzeko: 5,727645 euro.

Oharra: Talde honek ehungaiak eta ehungaien beste azken ukituak zuritzea, tindatzea, estanpatzea eta prestatzea hartzen du, hau ere, iharduera hori aipatu ehungintzatik bananduta sailka daitezke.

Argibide gisa baizik ez, subjektu pasiboak ondorengo epigrafeetako sailkapenaren arabera burutzen dituen iharduketak aitortuko ditu:

436.1 Epigrafea.—Ehun zurituak.

436.2 Epigrafea.—Ehun tindatuak.

436.3 Epigrafea.—Ehun estanpatuak.

436.9 Epigrafea—Ehun prestatuak, merkaturatuak edo azken ukituak beste eran emandakoak.

437 TALDEA. ALFONBRA ETA TAPIZ ETA EHUN BUSTIEN FABRIKAZIOA.

4371 Epigrafea.—Alfonbra eta tapizen fabrikazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,275937 euro.

Kw bakoitzeko: 7,903309 euro.

Oharra: Epigrafe honek edozein moetatako zuntzeko alfonbra, tapiz, zirri eta antzeko beste artikuluen fabrikazioa hartzen du.

437.2 Epigrafea.—Ehun bustien fabrikazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,275937 euro.

Kw bakoitzeko: 7,903309 euro.

Oharra: Epigrafe honek honako hauen fabrikazioa hartzen du: olio lehortuekin bustitako ehunak (ehun iragazkaiztuak, olioztatzea, bernizatzea, uleak eta tela ezkoztatuak, etabar.); zelulosa eratorriekekin edo erretxina sintetikoekin bustitako ehunak; linoli eta antzeko zoru estalgarriak (plastikozkoak ezik); kolaz, materia ulituez bustitako ehunak; pintura, kalko, eta gomaztatzerako, telak, etabar.

439 TALDEA. BESTE ZENBAIT EHUN INDUSTRIA.

439.1 Epigrafea.—Sokagintza.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 3,924609 euro.

Kw bakoitzeko: 3,924609 euro.

Oharra: Epigrafe honek honakoen fabrikazioa hartzen du: sokatzarrak, zirgak, sogak, kordelak, kableak, sareak, arrantzarako hariak eta beste zenbait sokateria artikulua.

439.2 Epigrafea.—Feldro, tulak, farfailak, eskuleriaren, eta barren fabrikazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 3,924609 euro.

Kw bakoitzeko: 3,924609 euro.

Oharra: Epigrafe honek honako hauen fabrikazioa hartzen du: gakorraz edo presio bidezko feldroa, ehun feldrozatuak, tulak, farfailak, brodatu mekanikoak eta antzeko artikulua; ehundu gabeko telagintza; ehuneko tutu, feldro, gerriko eta zingilak; zintak, lazua, kordonak eta eskudeleria, etabar.

439.3 Epigrafea—Zuntz eraberrituekin egindako ehungintza.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 1,496520 euro.

Kw bakoitzeko: 1,742935 euro.

Oharra: Epigrafe honek zuntz birlortuekin egindako ehungintza hartzen du (eraberrituak eta hondakinak), halaber, zuntzak prestatzea, iruteak fabrikatzea eta aipatu zuntz eraberrituen ehunak.

439.9 Epigrafea—B.i.s.ko zenbait ehungintza.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,100273 euro.

Kw bakoitzeko: 6,100273 euro.

Oharra: Epigrafe honek beste zenbait ehun artikuluen fabrikazioa hartzen du, esate batera, ehun elastikoak, guata, borra, miraguanoa, grina, artehunak eta tapizieria betegarrietarako eta beste edozein erabilpenerako beste materialak; etabar.

43 MULTZOARENTZAKO OHAR AMANKOMUNA: Sujetu pasiboek multzo honetan barne harturik dauden iharduerak hirugarrenentzat eta enkarguz soilik burutzen dituztenean, 10 langile baino gutxiagorekin, kuota dagokion errubrikari esleitutako kuotaren 100eko 25ekoa izango da; langile kopurua 9tik gorakoa eta 25etik beherakoa izango balitz, kuota dagokion errubrikari esleitutako kuotaren 100eko 50ekoa izango litzateke.

44 Multzoa. Larrugintza.

441 TALDEA. LARRUAK ETA LARRUAZALAK ZURRATZEA ETA AZKEN UKITUAK EMATEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 17,916171 euro.

Kw bakoitzeko: 10,577813 euro.

Oharra: Talde honek larrua eta larruazalak prestatzea hartzen du beroriexek zurratzeko; larruak eta larruazalak zurratzea, apailatzea, estanpatzea, txaroleztatzea, tindatzea, koloregetzea eta azken ukituak ematea, halaber, larrua eta larru sintetikoaren aglomeratuak fabrikatzea.

Argibide gisa baizik ez, subjektu pasiboak ondorengo epigrafeetako sailkapenaren arabera burutzen dituen iharduketak aitortuko ditu:

441.1 Epigrafea.—Azken ukitua eman gabeko larru eta larruazalak.

441.2 Epigrafea—Azken ukitua emandako larru eta larruazalak.

441.3 Epigrafea—Larru eta larruazal eraberrituak, zurraketaren hondar ekoizkinak eta azpi ekoizkinak.

442 TALDEA. LARRU ARTIKULUEN ETA ANTZEKOEN, FABRIKAZIOA.

442.1 Epigrafea—Larrukiteria eta bidoiarako artikuluen fabrikazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 24,761699 euro.

Kw bakoitzeko: 34,029305 euro.

Oharra: Epigrafe honek honako hauen fabrikazioa hartzen du: larruzko edo larru ordezkoeekin egindako boltsoak, karterak, gerrikoak, doxak, diruzorroak, kutxatilak, maletak, maletatxoak, boltsak eta larrukiteria eta bidaiarako beste antzeko artikulua.

442.2 Epigrafea—Larruazalezko guanteen fabrikazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 24,761699 euro.

Kw bakoitzeko: 34,029305 euro.

Oharra: Epigrafe honek jantzi eta babesteko mitoirak eta guanteen fabrikazioa hartzen du, halaber, kiroletarako guante bereziak.

442.9 Epigrafea—B.i.s.g.ko larruzko beste artikuluen fabrikazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 19,785318 euro.

Kw bakoitzeko: 27,249889 euro.

Oharra: Epigrafe honek beste epigrafeetan zehaztu gabeko larruzko artikuluen fabrikazioa hartzen du, esate batera, industri erabileretarako larruzko artikulua (hedeak, tekuak, tiratakuak etabar.); goarnizio artikulua (hederia, pildatzarrak, muntatzeko silak, zartailuak eta ustak, etabar.); botagintza artikulua, (botak eta koranbreak), uhaleria, ekipo militarrek, kirol artikulua, etabar.; halaber, larru ordezkoeekin eta mailuz landutako artikuluen fabrikazioa.

442 taldeko oharrekin bat datorren oharra. 442 taldeko iharduerak gehienez hiru langilekin egiten dituzten 442 talde horretan matrikulaturiko subjektu pasiboek epigrafe horri esleitutako kuotaren 100eko 50a tributatuko dute.³⁵

45 Multzoa. Oinetako eta janzkien industria eta beste ehunezko konfekzio batzuk.

451 TALDEA. OINETAKOAK SERIE ERARA FABRIKATZEA (KAUTXUZKOAK ETA ZUREZKOAK EZIK).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 11,196856 euro.

Kw bakoitzeko: 10,704026 euro.

Oharra: Talde honek edozein moztetako oinetakoen (jazteko, kirolekoak, lanerakoak, balletekoak, etabar.) fabrikazioa hartzen du, sailean egindakoa eta larruzkoa edo batipat larruzkoa, telazkoa edo ordezkiena izanez; halaber, oinetakoentzako larruzko zatiki eta akzesorioen fabrikazioa.

Argibide gisa baizik ez, subjektu pasiboak ondorengo epigrafeetako sailkapenaren arabera burutzen dituen iharduketak aitortuko ditu:

451.1 Epigrafea—Oinetakoen fabrikaziorako eta azken ukituak emateko zerbitzurako tarteko ekoizkinak.

451.2 Epigrafea.—Sailean egindako kale oinetakoak.

451.3 Epigrafea—Sailean egindako etxeke zapatilak, oinetako bereziak, polainak eta antzekoak.

451.4 Epigrafea—Edozein jatorritako larruzko ebakinak eta ondarrak.

452 TALDEA. ARTISAUTZA OINETAKOEN FABRIKAZIOA NEURRIAN (OINETAKO ORTOPEDIKOAK BARNE).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 13,066003 euro.

Kw bakoitzeko: 12,567163 euro.

Oharra: Argibide gisa baizik ez, subjektu pasiboak ondorengo epigrafeetako sailkapenaren arabera burutzen dituen iharduketak aitortuko ditu:

452.1 Epigrafea—Artisautza oinetakoak neurrian.

452.2 Epigrafea.—Oinetako ortopedikoak.

453 TALDEA. EDOZEIN MOETATAKO JANZKI ETA BERE OSAGARRIEN KONFEKZIOA SAILEAN.

³⁵ Ohar amankomun hau otsailaren 1eko 3/1994 Foru Dekretuaren 13. artikulua aldatu du. Foru dekretu horrek Estatuaren 1994rako Aurrekontu Orokorreko buruzko abenduaren 29ko 21/1993 Legea eta neurri fiskalak eman, funtzio publikoaren erregimena eraberritu eta langabeziaren aurka babesteko abenduaren 29ko 22/1993 Legan jasotako neurri fiskaletara egokitzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia. 1994ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak sortzen ditu.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 10,577813 euro.

Kw bakoitzeko: 11,821908 euro.

Oharrak: 1º. Talde honetakoak dira:

—Gizonezko kanpo janzkien konfekzioa hartzen du, sailean egindakoa jakina, esatebatera, abrigoak, kapak, zamarrak, bata, jakak, galtzak, trajeak, bainujantziak, ehunez egindako puntuzko konfekzioak, etabar., halaber, emakumezko kanpo janzkien konfekzioa, sailean egindakoa, esatebatera, abrigoak, kapak, zamarrak, bata, brusak, gonak, galtzak, trajeak, bainujantziak, soinekoak, ehunez egindako puntuzko konfekzioak, etabar. Edo zein moztetako haur janzkien konfekzioa.

—Baita honako hauen konfekzioa sailean ere, alkandorak, galtzontziloak eta antzekoak, pijamak, azpiko gonak, konbinazioak, bragak, faxak, bularretakoak, eta mihiseriazko beste artikulua, ehunez egindako puntuzko konfekzioak barne direlarik, etabar.

—Hala nola, honako hauen konfekzioa sailean eginda, lanerako janzkiak, uniformeak, larruzko janzkiak eta antzekoak, euritarako janzki bereziak josita edo plastiko soldatuan eginak, militar eta kirol janzkiak, apaiz eta erlijioso janzkiak, antzerkikoak, etabar.

—Kapelentzako kasko eta xingolen konfekzioa sailean, era berean kapelak, bonetak, tokatu eta antzekoen konfekzioa.

—Aterki, bastoi eta sonbrilen fabrikazioa sailean gorbatak, tokila jakak, beloak, mantilak eta musuzapiarenak ere bai, hala nola, modako loreak eta lumak; bularretako tiranteak, abanikoak, etabar.

—Eredu eta patro diseinu lanak burutzea makinaz josita bainikak, plisatuak eta beste epigrafeetan zehaztu gabeko jantzizigintzari erantsiriko beste iharduera zenbait.

Halaber, talde honek sortaketarako zakuak, iragazki telak eta boltsa zentrifugoaren konfekzioa sailean ere hartzen du.

2º. Subjektu pasiboek talde honetan dauden iharduerak, soilkigarren batzuzentzat eta mandatuz egiten dituztenean, eta 10 langile baino gutxiagorekin, kuota, taldeari dagokionaren ehuneko 25a izango da; 9 langile baino gehiago eta 25 baino gutxiago balitz, orduan kuota, taldeari dagokionaren ehuneko 50a izango da.

454 TALDEA. JANZKIAK ETA BERE OSAGARRIEN KONFEKZIOA NEURRIAN.

Kuota: 115,08 euro.

Oharra: Talde honek emakumezko, gizonezko eta haurrentzako azpiko eta kanpo janzkien konfekzioa hartzen du, neurrian eginda jakina, (jostungintza neurrian eginda, goi josturako lantegiak, modisteria neurrian eginda, etabar.) halaber, kapeleak eta janzkiaren beste akzesorioen konfekzioa neurrian.

Argibide gisa baizik ez subjektu pasiboak ondorengo epigrafeetako sailkapenaren arabera burutzen dituen iharduketak aitortuko ditu:

454.1 Epigrafea.—Neurrian egindako janzkiak.

454.2 Epigrafea.—Janzkiarentzako neurrian egindako kapelak eta akzesorioak.

455 TALDEA. EHUNGAIEKIN EGINDAKO BESTE ARTIKULUEN KONFEKZIOA.

455.1 Epigrafea.—Etzerako ehunezko artikuluen konfekzioa eta tapizgintza.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 13,685046 euro.

Kw bakoitzeko: 15,055353 euro.

Oharra: Epigrafe honek, oherako, mahairako, garbiketarako eta antzekoetarako ehunezko artikuluen konfekzioa hartzen du, halaber, artilezko koltxoak, kortxoak, etabar.; gortinaiak, leihosareen tapizatzea eta konfekzioa, etabar.

455.9 Epigrafea.—Ehungaiez egindako beste artikulua batzuren konfekzioa, b.is.g.koak.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 10,577813 euro.

Kw bakoitzeko: 11,821908 euro.

Oharra: Epigrafe honek, beste epigrafeetan zehaztu gabeko ehungaiekin egindako artikuluen konfekzioa hartzen du, esatebatera, olanazko artikulua (zakuak, dendak, toloak, belak, etabar.) estandarteak, banderak, eliz tresnak, ezaugarriak, brodatuak eta beste zenbait apaingailu, jauskailuak, kotoi hidrofiloak, esterilizatu gabeko benda eta gasak ere bai.

455 Taldearentzako oharra: Talde honetako iharduketak burutzen dituzten subjektu pasiboek, hau da, bereziki hirugarrenentzako eta enkarguz egiten dutenean eta lan horretarako 10 langile baino gutxiago erabiltzen badituzte, kuota dagokionaren %25ekoa izango da; langile kopurua 9 baino gehiago eta 25 baino gutxiagokoa bada, kuota dagokionaren %50ekoa izango da.

456 TALDEA. LARRUTERIA INDUSTRIA.

456.1 Epigrafea.—Larruteria naturala.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 66,874617 euro.

Kw bakoitzeko: 93,499453 euro.

456.2 Epigrafea.—Larruteria artifiziala.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 50,142440 euro.

Kw bakoitzeko: 70,108062 euro.

456 TALDEARI DAGOKION OHARRA: Talde honek honako hauen konfekzioa hartzen du: jantziak, kapelak, estolak eta jantziarentzako beste akzesorio batzu, alfonbrak, mantak, larru mehe arruntekin eta larru imitazio edo ordezkoeekin (itxurazko larruteria) egindako beste zenbait artikulua, halaber, larru kondarren eraldatze berezitua.

Sujetu pasiboek multzo honetan barne harturik dauden iharduerak hirugarrenentzat eta enkarguz soilik burutzen dituztenean, 10 langile baino gutxiagorekin, kuota dagokion errubrikari esleitutako kuotaren 100eko 25ekoa izango da; langile kopurua 9tik gorakoa eta 25etik beherakoa izango balitz, kuota dagokion errubrikari esleitutako kuotaren 100eko 50ekoa izango litzateke.

46 Multzoa. Zura, kortxoa eta zurezko altzari industriak.

461 TALDEA. ZURA ZERRATZEA ETA INDUSTRI PRESTAKUNTZA (ZERRATZEA, MARRUSKETA, LEUNKETA, GARBIKETA, ETABAR.).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 11,575493 euro.

Kw bakoitzeko: 4,044811 euro.

Oharra: Talde honek, plantxak, oholtzarrak, oholak, listoiak, trabesak, etabar. egiteko zuraren zerraketa mekanikoa hartzen du, halaber zura marrustea, garbitzea, leuntzea, lehortzea, lurruntzea, kreosotatzea eta zuraren beste zenbait tratamendu.

Argibide gisa baizik ez, subjektu pasiboak ondorengo epigrafeetako sailkapenaren arabera burutzen dituen iharduketak aitortuko ditu:

461.1 Epigrafea—Zuraren zerratze eta industri prestaketaren ekoizkinak.

461.2 Epigrafea—Zuraren zerratze eta industri prestaketaren kondar ekoizkinak.

462 TALDEA. ZUREZ ERDI EGINDAKO PRODUKTUEN FABRIKAZIOA (TXAPAK, TAULAK, ZUR HOBETUAK, ETABAR.).

462.1 Epigrafea.—Zurezko txapak.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw bakoitzeko: 5,355018 euro.

462.2 Epigrafea.—Zur txapatuak, kontra-txapatuak eta zelulazko taulak.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw bakoitzeko: 5,355018 euro.

462.3 Epigrafea.—Zuntzezko eta partikulazko taulak eta panelak.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,367988 euro.

Kw bakoitzeko: 4,110923 euro.

462.4 Epigrafea.—Zur hobetuak.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw bakoitzeko: 5,355018 euro.

463 TALDEA. ERAIKUNTZARAKO ZURGINTZA PIEZAK, PARKETA ETA ZUREZKO EGITUREN FABRIKAZIOA SAILEAN.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 14,310098 euros.

Kw bakoitzeko: 4,543652 euro.

Oharra: Talde honek honako hauek hartzen ditu: eraikuntzarako (lantegi zurgintza) ateak, leihoak, hesiak, markuak, egitura aurreginak eta beste zenbait zurezko pieza fabrikatu eta jarri batean eginez edo fabrikazioa soilik, hala nola, parketak, Zurtatzeak, molderia, etabar., (zurgintza mekanikoa), halaber, zurezko pertsianak, manparak, etabar. fabrikatzea.

Argibide gisa baizik ez, subjektu pasiboak ondorengo epigrafeetako sailkapenaren arabera burutzen dituen iharduketak aitortuko ditu:

463.2 Epigrafea.—Zurezko ateak era leihoak.

463.2 Epigrafea.—Zurezko parketa, zurtaketa eta lauxak.

463.3 Epigrafea.—Eraikuntzarako beste zenbait pieza.

463.4 Epigrafea.—Zurezko egitura elementuak eta eraikuntza aurreginak.

464 TALDEA. ZUREZKO ONTZI ETA SORTAKETEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 14,310098 euro.

Kw bakoitzeko: 4,543652 euro.

Oharra: Talde honek, edozein moztetako zurezko kaxak, kaiolak, zilindroak, sortaketak, kaizak, maletak, erretilu kaxak, erretilua eta beste zenbait akzesorioen fabrikazioa hartzen du, halaber, zuntzezko edo partikulezko panelak, baita upelak eta beste ontzi batzu eta upagintzarako piezen fabrikazioa ere.

Argibide gisa baizik ez, subjektu pasiboak ondorengo epigrafeetako sailkapenaren arabera burutzen dituen iharduketak aitortuko ditu:

464.1 Epigrafea.—Zurezko ontziak eta industri sortaketak (upagintza ezik).

464.2 Epigrafea.—Upagintza.

464.3 Epigrafea.—Zurezko kutxatila, kaizak, maletak eta beste ontzi batzuk.

465 TALDEA. ZUREZKO GAUZA EZBERDINEN FABRIKAZIOA (ALTZARIAK EZIK).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 14,310098 euro.

Kw bakoitzeko: 4,543652 euro.

Oharra: Talde honek honako hauen fabrikazioa hartzen du: moldurak eta ziritxoak; koadro eta ispi-luentzako markuak, barra borobilduak eta torneatuak; erremintak, erratzak, pintzelentzako, etabar. kirtenak; zurezko erremintak, erabat zurezkoak diren oinetakoak (zuekuak, eskalapoia, etabar.) ormak, takoiak, kakoak, etxerako tresnak, zotzak, apainketa artikulua, ehungintzarako zurezko artikulua (txirrikak, ardatzak, etabar.) eta zurezko beste pieza batzuk, halaber, irina, artilea edo zurezko zuntzen ekoizpena.

Argibide gisa baizik ez, subjektu pasiboak ondorengo epigrafeetako sailkapenaren arabera burutzen dituen iharduketak aitortuko ditu:

465.1 Epigrafea.—Etxerako eta apainketarako zurezko gauzak.

465.2 Epigrafea.—Zurezko erremintak, kirtenak, montura eta antzeko artikulua.

465.3 Epigrafea.—Oinetakoak fabrikatu eta kontserbatzeko zurezko artikulua.

465.4 Epigrafea.—Ehungintzarako zurezko artikulua.

465.5 Epigrafea.—Zurezko oinetakoak.

465.6 Epigrafea.—Zurezko irina eta artilea.

465.9 Epigrafea.—B.i.s.g.ko zurezko beste zenbait gauza (altzariak ezik).

466 TALDEA. KORTXOZKO EKOIZKINEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 9,952760 euro.

Kw bakoitzeko: 7,656894 euro.

Oharra: Talde honek honakoien kortxozko ekoizkinen fabrikazioa hartzen du: koadra-diloak, plantxak, diskoak, bikorkadurak, zerrautsa eta kortxo naturalezko beste zenbait hondakin; isolamendua eta beste erabileretarako kortxozko aglomeratuen fabrikazioa ere bai; tapagailuak, lauxak, kurtxoak, salbagerrikoak eta salbatxalekoak, zolak, flotagailuak, fantasia artikulua eta kortxozko beste zenbait artikulurena bezalaxe.

Argibide gisa baizik ez, subjektu pasiboak ondorengo epigrafeetako sailkapenaren arabera burutzen dituen iharduketak aitortuko ditu:

466.1 Epigrafea.—Kortxozko ekoizkinak.

466.2 Epigrafea.—Kortxozko artikuluen fabrikazioaren kondar ekoizkinak.

467 TALDEA. IHIZKO ETA KANABERAZKO ARTIKULUAK, SASKIGINTZA, BROTXAK, ARRABOTEN, ETABARREN FABRIKAZIOA (ALTZARIAK EZIK).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 9,706345 euro.

Kw bakoitzeko: 5,102593 euro.

Oharra: Talde honek palmazko, kanaberazko, zumezko, ihizko etabar. artikuluen fabrikazioa hartzen du; halaber, saskigintza eta beste artikulua kordonduak; erratzak, mustukak, edozein moztetako arrabotak, pintzelak, etabar.

Argibide gisa baizik ez, subjektu pasiboak ondorengo epigrafeetakoo sailkapenaren arabera burutzen dituen iharduketak aitortuko ditu:

467.1 Epigrafea.—Materia kordondun artikulua.

467.2 Epigrafea.—Arrabotak, brotxak, erratzak eta antzeko artikulua.

468 TALDEA. ZUREZKO ALTZARIGINTZA.

468.1 Epigrafea.—Etxerako diren zurezko altzarien fabrikazioa

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,588463 euro.

Kw bakoitzeko: 5,102593 euro.

Oharra: Talde honek batipat zurezkoa den mobiliarioaren fabrikazioa hartzen du, sukalde, jangela, logela, gauzak jartzeko mobiliarioa hain zuzen, halaber, egongela, liburutegia eta ezkaratzeko altzari elementukakoak eta eraldagarriak; aulkiak, besaulkiak, sofak, etabar, tapizatuak eta etxerako diren beste zenbait altzari.

468.2 Epigrafea.—Eskola eta bulegorako diren zurezko altzarien fabrikazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,588463 euro.

Kw bakoitzeko: 5,102593 euro.

Oharra: Epigrafe honek, eskola eta bulegorako batipat zurezkoa den mobiliarioaren fabrikazioa hartzen du, esatebatera, idaztegiak, bulego aulkiak, pupitreak, mahaia, artxibategiak, armairuak, liburutegiak, etab.

468.3 Epigrafea.—Zurezko, ihizko, zumezko eta kanaberazko altzari ezberdinen fabrikazioa

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,588463 euro.

Kw bakoitzeko: 5,102593 euro.

Oharra: Epigrafe honek zurezko, ihizko, zumezko eta kanaberazko altzari ezberdinen fabrikazioa hartzen du, esatebatera, lorategirako altzariak, ekitaldi areto eta ikuskizunetarako eserlekuak, elizarako, estraturako altzariak, saltegi eta jatetxetarako, etabar, altzariak eta akzesorioak.

468.4 Epigrafea.—Hilkutxen fabrikazioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,588463 euro.

Kw bakoitzeko: 5,102593 euro.

Oharra: Epigrafe honek batipat zurezkoak diren hilkutxak eta hileta ontzien fabrikazioa hartzen du.

468.5 Epigrafea.—Altzarigintzari erantsiriko iharduerak (azken ukitua, bernizatzea, tapizatzea, urreztatzea, etabar.).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,845528 euro.

Kw bakoitzeko: 4,110923 euro.

Oharra: Epigrafe honek zurezko altzari fabrikazioaren azken ukitua ematea, bernizatzea, pintatzea, lakatzea, urreztatzea, tapizatzea, goarnizatzea eta beste zenbait egintza osagarri hartzen ditu.

47 Multzoa. Paper industria eta paperezko artikuluen fabrikazioa; arte grafikoak eta argitarapena.

471 TALDEA. PAPEREZKO OREAREN FABRIKAZIOA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 0,685154 euro.

Kw bakoitzeko: 1,496520 euro.

 - b) Eraikin berean edo ondokoetan kokatuta egonik jendearen zerbitzurako ate ezberdinak eduki eta edozein era nabarmenez zatituta daudenak, nahiz eta jabearentzako barne-pasabideak izan.
 - c) Lokal beraren departamentu edo sekzioak, era nabarmenez zatituta egonik erraz isola daitezkeenean eta hauetan iharduera ezberdinak buru daitezenean.
 - d) Eraikin bereko solairuak, barne-pasabideak izan ala ez, hauetan titular bakar batek iharduera berbera buru dezanean ezik.
 - e) FERIA, azoka edo erakusketa iraunkorretako saltoki, kajoi eta gelauneak, baldin eta gaiak jarri eta saltzeko isolaturik edo banandurik badaude, nahiz eta guztientzako sarrera zein irteera bat bera izan.
- Zerga Administrazioak lokal berean titularrak administrazio edo kontabilitate ezberdina daramaten iharduerak buru ditzanean ere bananduriko lokalizat hartu ahal izango ditu.
- Ekoizkin baten fabrikazio-aldiak barruti berean kokatzen ez diren baina ustiapen-unitatea osatzen duten instalakuntzetan burutzen dituzten fabrikatzaileak direnean, guztiak osoki lokal bakartzat hartuko dira, baldin eta aipatu aldiek berez Tarifetan zergapeturiko iharduerarik sortzen ez badute. Ostalaritza edo gordailutegi-establezimendu baten instalakuntzak barruti berean kokaturik aurki ez daitezen kasuetan ere, lokalen batasun-erizpide berbera aplikatuko da.

3. Ondasun bat aldiberean etxebizitza eta zergapeturiko iharduera batetara eman dadinean, praktikan zergagai den iharduera buru dadin ondasun-zatia bakarrik izango da lokalizat hartua.

7. Erregela Fabrikazio-ihardueren buratzapenean aldiberekotasuna.

Subjektu pasibo batek aldeberean zergapeturiko fabrikazio iharduera zenbait buru dezanean, eta hauek, lehengaien edo tarteko ekoizkinen prestaketa edo lorpenetarakoak izateagatik fabrikazio-prozesuaren beraren barnean daudenean, iharduera hauei dagozkien kuotetatik handiena ordainduko du, beste guztien 100eko 50a gehituz, baldin eta aipatu tarteko ekoizkinak salmentagai ez badira. Tarteko ekoizkinak salmentagai balira, subjektu pasiboak kuota guztien zenbateko osoa ordaindu beharko luke. Dagozkien zergagaiak fabrikazio-prozesu berean sartutako iharduera bakoitzari egotziko zaizkio.

Aurreko pasartean oharmandakoaren eraginetarako, tarteko ekoizkintzat ekoitzi diren bezala eta merkatuaren bidez sal litezkeenak izanik prozesu bereko ondorengo eraldaketa batetarako lehengai gisa erabat erabil daitezenean hartuko dira.

Erregela honetako aurreneko pasartean xedatutakoa ez da aplikagarria izango honako kasuetan:

- a) Fabrikazio-prozesu berean sartzen ez diren ekoizpenak izan daitezenean.
- b) Idazpuru berean sailkatutako ekoizkin ezberdinak fabrika daitezenean.
- c) Ekoizkinak, nahiz eta prozesu berekoak izan, lokal ezberdinetan ekoitzi daitezenean, subjektu pasibo berberaren jabegokoak diren ala ez kontutan hartzeke.

8. Erregela Tarifetan zehaztu gabeko ihardueren zerga ematea.

Tarifetan zehaztu gabeko enpresa, lanbide eta arte-iharduerak, behin-behinik, beste leku batzutan sailkatu gabeko (b.l.b.s.g.) iharduerari dagokien talde edo idazpuruan sailkatuko dira, beren izaeraz hurbilen datorkienean eta aipatu talde edo idazpuruari dagokion kuotaren zioz emango dute zerga.

Aurreko pasartean aurrikusitako sailkapena egitea ezinezkoa bada, Tarifetan zehaztu gabeko iharduerak, behin-behinik, beren izaeraz hurbilen datorkien iharduerari dagokion talde edo idazpuruan sailkatuko dira, eta honen kuotaren zioz emango dute zerga.

III. kapitulua

Kuoten erregimena

9. Erregela Kuota-moetak.

Tarifetan jasotako kuotak honela sailkatzen dira:

- a) Gutxienezko udal-kuotak.
 - b) Probintzia-kuotak, eta
 - c) Estatu-kuota bereziak, probintzia bat baino gehiagotan iharduteko ahalmena ematen dutenak alegia.
- Tarifetan jasotako abelazkuntza independienteko iharduerari dagozkien tarifetako kuotak udaleko gutxienekoak dira guztiak, eta ondoren azaltzen den 10. Erregelaren xedatutakoa ezarriko zaie.

10. Erregela. Udal kuota minimoak.

1. Gutxienezko udal-kuotak Tarifetan izen honenpean zehazki aipaturik agertzen direnak dira, kasua bada, zergapeturiko iharduerak buru daitezen lokalen azalera elementua gehituz, eta baita aipatu Tarifetan probintzia edo estatu-kuota berezia den zehazten ez den beste edozein kuota ere.

Era berean, 14. Erregelaren 1. F) atalean xedatutakoaren aplikapenaren zioz beren zenbatekoak, oso-osorik, azalera zergagaiak sortutakoak direnean ere gutxienezko udal-kuotatzat hartuko dira.

2. Gutxienezko udal-kuoten ordainketak dagozkien iharduerak hori eman dadin udalerrian bertan burutzeko ahalmena ematen du, Instrukzio honetako 5. Erregelaren aurrikusitakoarekin bat etorriz.

3.¹²⁴ Jarduera bat lokal batean baino gehiagotan egiten bada, subjektu pasiboak ordaindu beharko dituen gutxieneko udal kuotak jardueraren erabilitako lokalak adinakoak izango dira, foru arau honen 11. artikuluan jasotako koefizienteekin eta indizearekin gehituta, hala badagokio. Lokal batean jarduera bat baino gehiago egiten bada, ordaindu beharreko gutxieneko udal kuotak jarduerak adinakoak izango dira, haien titularrak pertsona edo entitate bera izan arren.

4. Profesionariak beren iharduera buru dezaten lokala kokaturik dagoen udalerritik kanpo egin ditzaten iharduketek ez dute beste inolako kuotaren ordainketarik sortuko, ez gutxienezko udal-kuota ez probintzia-kuota, ezta estatu-kuota berezirik ere.

5. Beren iharduerak lokal ezagunean buru ez ditzaten profesionalek eta artistek, beren iharduerak buru ditzaten lekuei dagozkien kuotak ordainduko dituzte, eta honetatik kanpo aipatu iharduerak bere dituzten iharduketak egin ahal izango dituzte.

11. Erregela Probintzia-kuotak.

1. Probintzia-kuotak Tarifetan izen honen pean propio zehazturik agertzen direnak dira.

¹²⁴ 3.apartatu hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUaren zazpigarren xedapen gehigarriaren 1. zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).

2. Probintzia-kuoten ordainketak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren barnean dagozkion iharduerak burutzeko ahalmena ematen du, inolako gutxienezko udal-kuota ordaindu beharrik,izateke.

12. Erregela Estatu-kuota bereziak.

1. Estatu-kuota bereziak probintzia bat baino gehiagotan iharduteko ahalmena eman eta izen honen pean Tarifetan propio zehazturik agertzen direnak dira.

2. Foru Lurraldean eginiko estatu-kuota berezien ordainketak edo baltzuango lurraldean eginiko nazio-kuotenak dagozkien iharduerak foru eta baltzuango lurraldean burutzeko ahalmena ematen dute, inolako gutxienezko udal-kuota edo probintzia kuota ordaindu beharrik izateke.

13. Erregela: Gutxienezko udal-kuota, probintzia-kuota edo estatu-kuota bereziaren ziozko zerga-ematea.

Dagokion iharduerak 9. Erregelak aipatzen dituen ezarritako kuotetatik bat baino gehiago izan ditzanean, subjektu pasiboak ordainketa hauetako bat aukeratzeko bidea izango du, 10. 11. eta 12. Erregeletan azpi marraturiko ahalmenez, hurrenez hurren.

14. Erregela Elementu zergagarriak.

1. 1. Erregelako 2.b) atalean oharteman-dakoaren eraginetarako, elementu zergagarritzat kuoten zehaztapenerako Tarifek edota Erregela honek itxuratutako ihardueraren indize moduluak hartuko dira. Ondoren elementu zergagarri nagusiak azaltzen dira:

A) Ezarritako potentzia.

Zergapeko potentzia ezarritzat, arau tipifikatuen arabera, industri ekipoari atxiki eta elektrizitate edo mekanika-jitezko energia-elementuen potentzia izendatuen batura izango da.

Beraz, ez dira eraikinetako berogintza, argigintza, aire-girotze, kutsaduraren aurkako instalazio, pertsonalgoaren igongailu, gizarte eta sanitatezko zerbitzu eta, oro har, zuzeneaneko izpenari loturik ez dauden elementuen potentziak zenbatuko, elektrizitatearen eraldaketa eta errektifikaziora emandakoak barne.

Ondorio hauetarako, erregai solidu, likidu edo gasdunez funtziona dezaten labe eta galdarak ere ez dira gogoan hartuak izango.

Industriaren kuotak lortzeko den potentzia fiskala zenba daitekeen potentzia ezarri osoa, $I_{CV}=0,736 Kw$ baliokidetasuna erabiliz, kilowatio bihurtzetiko emaitza matematikoa izango da.

Saio-banku, entseiu-plataforma eta antzekoetan ezarritako potentzia benetan ezarritako potzentziaren 100eko 10ean zenbatuko da.

Fabrika-instalakuntzen erreserba ekipoak ez dira elementu zergagarritzat hartuko, Zerga Administrazioari horrela aitor dakizkionean.

B) Behargin kopurua.

Lanbidezko profesionari, espezialista eta peoien plantila osoa izan eta enpresaren xedeko ekoizpenari zuzenean lotutako behar ginen kopurua hartuko da gogoan.

Beraz, ez dira, kopuru horretan, besteak beste, zuzendaritzako pertsonalgoa, teknikariak, administrariak, merkataritzakoak, banaketakoak, gidariak, jagoleak, mandataria, mutilak eta pintxeak zenbatuko, azken kategoria biotarako zenba daitezkeen behargin guztien 100eko 10eko gehienezko muga dagoelarik.

Behargin batzuk lantegian lan egin eta beste batzuk haren kontura etxean egin dezaten, azken hauentzako zenbaketa plantilako beharginetik baliokidetasunaren bitartez ezarriko da. Ondorio hauetarako, eranskin bat kalkulatu da, etxeko langileei dagokien balio ekonomiko erantsia ihardueraren urteko batazbesteko aleko lansariaz, lege dagozkiekeen kopuru osagarriak borne, zatitzetiko zatidura osoa, gutxiegi, dena.

Inoizkako beharginak eta tartekako finakoak finakoez baliokidetasunaren bitartez ere zenbatuko dira, egiten diren lantegien batura urteko lanegun guztiez zatitzetiko zatidura osoa, gutxiegi, hartuta.

Aldibatatara lan-hitzarmena duten behargin finakoak zenbatzeko, urteko egiten diren lanorduen batura aldi osorako kontratuak izanez gero gertatuko liratekeen orduz zatitzetiko zatidura osoa, gutxiegi, hartuko da.

C) Egunezko lan-txandak.

Zergaren kuotek iharduera burutzeko ahalmena ematen dute, lan-txanda kopurua edozein dela ere.

D) Eskubidezko biztanlegoa.

Udalerriko eskubidezko biztanlegoa herrian bertan edo kanpoan dauden Udal Biztanle-Erroldan izen emandako egoilari guztien kopuruak osatuko du. Egoilari izaera aipatu izen ematearen une berean lortzen da.

E) Ikuskizun-aretoetako aforoa.

Ikuskizunak egiten diren areto edo barruaren edukiera bere lekuek zenbakia izan dezaten eginiko zenbaketa bitartez finkatuko da.

Zenbakirik gabeko jarleku higitzaile edo lerroka banaturiko zutuneko lekuak dituzten ikuskizunetan, jarleku edo leku bat 50 zentrimetroko luzerako zenbatetsiko da.

F) Lokalen azalera.

a) 1. Sekzioko ohar orokorrak eta Tarifetako 2. Sekzioko bigarren ohar orokorrak aipatzen duten azalera elementuaren, aplikapenaren eraginetarako, Instrukzio honetako 6. Erregelari zergapetutako iharduerak burutzen diren lokaltzat zehaztutakoak hartuko dira honetan ere horietakotzat.

b) Horretarako, lokal azaleratzat bere poligonoaren barnean sartutako osoa hartuko da, metro karratutan agertuta, eta, kasua balitz, bere solairu guztietako azalaren batuketa.

Aurreko pasartean oharmandakoa dela ere, azaleratzat honakook hartuko dira:

1.a Lehengai edo edonolako ekoizkinen gordailutegi, aire zabaleko, lehortegi, ur-biltegi eta, orokorrean, halako ihardueraren edozein alderditara emandako eraiki edo estali gabeko azalaren 100eko 20a.

Aurreko lerroetakoa bere hortan dela ere, zergapetutako iharduerei zuzenean loturiko edo zergen alderdiren bati loturiko kirol instalazioen kasuan, azalaren 100eko 5a bakarrik hartuko da kontuan, kirol ikuskizunetara dihoan jendearentzako jarritako harmailak eta gainerako instalazio iraunkorrek hartzen duten azalaren izan ezik; azken horren 100eko 20 hartuko da.¹²⁵

Beraz, ez da zenbatuko dagokion iharduera edo honen alderdiren bat zuzenki burutzeko erabili ez dadin eraiki edo estali gabeko azalararik, bide, lorategi, segurtasun-gune, aparkaleku, etab. kasu, inolaz ere zenbatuko.

2. Garaiko ihardueretarako kalebidea saltoki eta antzekoen bidez okupa dadin azalera osoaren 100eko 40a.

3. Mota guztietako kirol instalazioen eta zinema, antzerki eta antzeko ikuskizunetarako lokalen azalera estali edo eraikiaren ehuneko 10, salbu kirol, zinema, antzerki eta antzeko ikuskizunetara dihoan jendearentzat jarritako harmailak, eserlekuak eta gainerako instalazio iraunkorrek hartzen duten azalera; azken horretatik ehuneko 50 konputatuko da.¹²⁶

4. Irakaskuntzaren maila guztietara emandako lokalen azalaren 100eko 50a, iharduera hau aurretik salbuetsia ez dagoenean.

5. Mota guztietako biltegi eta gordailutegien azalaren 100eko 55a.

6 Estalitako aparkalekuen azalaren 100eko 55a.

c) Aurreko b) hizkian jasotako arau guztien aplikapenetik atera dadin metro karratu kopurutik, 100eko 5aren kenketa egingo da kasu guztietan, zergapetutako iharduerari zuzenki atxeki gabeko hutsune, enpresa-jangela, igongailu, eskailera eta bestelakoen zioz.

Ostalaritza-iharduera den kasuetan, aurreko pasarteak aipatutako dedukzioa 100eko 40koa izango da, hau, bakar-bakarrik, ostalaritza-iharduera nagusiari zuzenki emandako eraikitako azalaren metro karratu kopuru osoaren gainean egingo delarik.

d) Azalera elementua zenbatekotzeko, honako koadro hauek aplikatuko dira:

1. 1. Koadroa: Koadro hau Tarifetako 1. Sekzioko 1etik 6rako Dibisioetan eta haien 2. Sekzioan sailkatutako iharduerak buru daitezen lokalen azalaren balioa zenbatesteko aplikatuko da.

EURO METRO KARRATUKO¹²⁷

LOKALAREN AZALERA	ZUZENBIDEZKO BIZTANLERIA				
	100.001 biztanle baino gehiago	50.001etik 100.000 biztanlera	20.001etik 50.000 biztanlera	5.001etik 20.000 biztanlera	5.000 biztanle baino gutxiago
Otik 500 m ² -ra	0,504850	0,330557	0,204344	0,102172	0,042071
500,1etik 3.000 m ² -ra	0,390658	0,252425	0,150253	0,078132	0,036061
3.000,1etik 6.000 m ² -ra	0,312526	0,210354	0,126213	0,066111	0,030051
6.000,1etik 10.000 m ² -ra	0,270455	0,174294	0,108182	0,060101	0,030051

¹²⁵ 1. puntuaren lehenengo parrafo hau otsailaren 1eko 3/1994 Foru Dekretuaren 13. artikulua aldatu du. Foru dekretu horrek Estatuaren 1994rako Aurrekontu Orokorreari buruzko abenduaren 29ko 21/1993 Legea eta neurri fiskalak eman, funtzio publikoaren erregimena eraberritu eta langabeziaren aurka babesteko abenduaren 29ko 22/1993 Legan jasotako neurri fiskaletara egokitzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia. 1994ko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioak sortzen ditu.

¹²⁶ 3. puntu hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 1. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorreari buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legea eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurri buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legea jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

¹²⁷ Koadroa hau udal zergen esparruan zenbait aldaketa sartzen dituen uztailaren 4ko 4/2012 FORU ARAUAREN 2. artikuluko bost apartatuak aldatu du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2012-07-10eko GAO)

10.000tik m ² gora	0,234395	0,150253	0,090152	0,048081	0,024040
-------------------------------	----------	----------	----------	----------	----------

2. II. Koadroa: hau Tarifetako 1. Sekzioko 7 Dibisioan sailkatutako garraio eta komunikazio-iharduerak buru daitezen lokalen azaleraren balioa zenbatesteko aplikatuko da.

EURO METRO KARRATUKO

LOKALARE N AZALERA	ESKUBIDEZKO BIZTANLEGOA				
	100.001 biztanle baino gehiago	50.001etik 100.000 biztanlera	20.001etik 50.000 biztanlera	5.001etik 20.000 biztanlera	5.000 biztanle baino gutxiago
0tik 500 m ² tara	0,378638	0,246415	0,144243	0,078132	0,036061
500,1etik 3.000 m ² tara	0,288486	0,192324	0,114192	0,060101	0,030051
3.000,1etik 6.000 m ² tara	0,240405	0,156263	0,096162	0,054091	0,024040
6.000,1etik 10.000 m ² tara	0,204344	0,132223	0,084142	0,048081	0,024040
10.000tik m ² gora	0,186314	0,120202	0,072121	0,042071	0,018030

3. III. Koadroa: Koadro hau Tarifetako 1. Sekzioko 8 Dibisioan sailkatutako finantz-erakunde, aseguru, enpresei eskeinitako zerbitzu eta alogera-iharduerak buru daitezen lokalen azaleraren balioa zenbatesteko aplikatuko da.

EURO METRO KARRATUKO

LOKALAREN AZALERA	ESKUBIDEZKO BIZTANLEGOA / POBLACION DE DERECHO				
	100.001 biztanle baino gehiago	50.001etik 100.000 biztanlera	20.001etik 50.000 biztanlera	5.001etik 20.000 biztanlera	5.000 biztanle baino gutxiago
0tik 500 m ² tara	1,196014	0,781316	0,468789	0,240405	0,096162
500,1etik 3.000 m ² tara	0,919549	0,601012	0,366617	0,186314	0,078132
3.000,1etik 6.000 m ² tara	0,739245	0,480810	0,288486	0,144243	0,060101
6.000,1etik 10.000 m ² tara	0,625053	0,408688	0,246415	0,126213	0,054091
10.000tik m ² gora	0,540911	0,348587	0,216364	0,108182	0,048081

Azalera elementuaren balio osoa, kasua balitz, lokalaren azalera-tarteune bakoitzaren zati-balioaren batuketak emango du. Aipatu zati-balioak azalera-tarteune bakoitzean zenbatu beharreko metro karratu kopurua hauei lokala kokaturik dagoen Udalerrriaren eskubidezko biztanlegoaren eratzean ezarritako euroko puruagatik biderketaz zenbatetsiko da.

e) Aurreko d) hizkian jasotako koadroen aplikapenaren ondoriozko azalera elementuaren balio osoa, ondoko koadroaren arabera dagokion zuzenketa-koefizientearen aplikapenaz haztatuko da, subjektu pasiboak buru dezan iharduera mota eta honentzat azalera elementua kontutan hartu aurretiko Tarifen aplikapenaz atera dadin kuotaren zenbatekoa gogoan izanik:

KUOTAREN ZENBATEKOAREN ETA JARDUERAREN IZAERAREN ARABERA APLIKATU BEHARREKO KOEFIZIENTE ZUZENTZAILAK:¹²⁸

KUOTAREN TARTEAK Euroak	1. SEKZIOA 1.etik 7.erako eta 9. SAILKAPENAK	1. SEKZIOA 8. SAILA
37,32 a 622,05	1,0	0,5
622,06 a 1.244,10	1,5	0,5
1.244,11 a 3.110,24	2,0	1,0
3.110,25 a 6.220,48	2,5	1,5
6.220,48tik gora	3,0	2,0

¹²⁸ Koadro hau Zerga Neurriei buruzko apirilaren 27ko 3/1999 Foru Arauaren 7. Artikuluaren bigarren apartatuak aldatu du, 1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

f) Lokal berean subjektu pasibo batek edo batzuk iharduera bat baino gehiago buru dezatenean, bakoitzari zuzenean erabilitako azalera egotziko zaio, lokalaren beste zatitik guztiek hartzen dutenetik dagokion heintasunezko zatia gehituz. Aurrekoa egiterik ez balego, iharduera bakoitzari lokal osoa beren kopuru osoaz zatitzeagatik emaitzaz lor daitezen metro karratuak egotziko zaizkio.

g) Probintzia eta estatu-kuota bereziak zenbatesteko, kasu guztietan, iharduerari zuzen edo zeharka atxikitako lokal guztien azalera elementuaren balioa hartuko da gogoan.

Balio hori zenbatesteko aurreko a), b) eta c) hizkietan jasotako arauen arabera zenbagarriak diren azalera metro karratu guztiak gehituko dira, eta honako koadro hau aplikatu:

PROBINTZIA-KUOTAK ETA ESTATU-KUOTA BEREZIAK

0tik 500 m²tara: 2,337937 euro.

500,1etik 3.000 m²tara: 1,712884 euro.

3.000,1etik 6.000 m²tara: 1,400358 euro.

6.000,1etik 10.000 m²tara: 1,153943 euro.

10.000 m²tatik gora: 0,997680 euro.

h) Gutxienezko udal-kuotaren ziozko subjektu pasiboek dagozkien iharduerak buru ez ditzaten lokaletako bakoitzak, zuzendaritza-zentruak, administrazio-bulegoak, kalkulu zentruak eta ahalmena duen biltegi edo gordailuak kasu, 10. Erregelaren 1 atalaren bigarren pasartean oharmandako gutxienezko kuoten zioz zerga emango du. Aipatu gutxienezko kuota aurreko d) hizkian jasotako koadroetatik dagokionaren aplikapenaren emaitzaz lortuko da, oso-osorik, zenbateko hau e) hizkian jasotako koadroko koefizientearen aplikapenaren zioz haztatzeak biderik ez duelarik.

i) 1991ko abenduaren 31n Kokapenaren gaineko Udal Zerga indarrean egon ez dadin Udalerrietan, gutxienezko udal kuotaren zioz zerga eman dadinean lokalen azalera elementu zergagarriari dagokion kuotaren zatia murriztu egingo da, horretarako ehuneko hauek aplikatuz:

a) 1992an zehar, 100eko 80ko murriztapena.

b) 1993an zehar, 100eko 60ko murriztapena.

c) 1994ean zehar, 100eko 40ko murriztapena.

d) 1995ean zehar, 100eko 20ko murriztapena.

j)¹²⁹ F) letra honetan araututako elementu tributarioa ez da kuoten zehaztapenerako aplikatuko, baldin eta kuota horiek kalkulatzeko Zergaren tarifek espreski kontuan hartu duten elementu tributarioa jarduerak burutzen diren lokalen azalera izan bada, metro karratutan konputatua.

Aurrekoaren ondorioz, tarifen errubrika jakin batzuetan metro karratuak aipatzen direnean (1. sekzioaren 647.2, 647.3 eta 647.4 epigrafeetan gertatzen da hori), aipamen hori bertan jasotzen diren jarduerak definitu eta sailkatzeko bakarrik egiten dela ulertzen da. Beraz, metro karratuen aipamena ezin da kuotaren elementu tributario konfiguratzailatzat hartu, eta horrelakoetan, aurreko parrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko.

G) Azienda-buru kopurua.

Buru kopuruak osatzen duen elementu zergagarria, ustialekuan urtebete zehar aldiberean dagoenari buruzkotzat hartuko da, aldi horren barruan gerta daitezen produkzio zikloen eraginez elkarren segidan ustialekuan dagoen abelburu kopurua kanpo utzita.

2.¹³⁰ Elementu tributarioak aplikatzeko arau orokorrak.

Elementu tributarioen gorabeherak 100eko 20tik gorakoak badira, aldaketatzat hartuko dira foru arau honen 14.2 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako.

Abeltzaintza independenteko jardueretan, 5 urtean behin bakarrik izango da aldaketa horien berri emateko obligazioa, zergadunek beren borondatez ekitaldi bakoitzerako alta edo baja aitorpenak egitea eragotzi gabe.

3. Krisialdian deklaraturako sektoreak.

Beren lan-plangintzaren birmoldaketa onar dadin krisialdian deklaraturako sektoreentzat, eta beren funtzionamendu erritmo berriari egokitu asmoz, zergaren ziozko bere zerga ematea aldaerazi da, horretarako beren elementu zergagarrien zehaztapenean honako arauak jarraituz:

a) Tarifako kuotari atxikitako behargin kopurua plantilan benetan dagoen kopurua urtebete zehar lan egindako orduak lanaldi arruntean eta denbora berean aterako liratekeen lanorduez zatitzetikoz zatiduraz biderkatuz lortuko da.

¹²⁹ j) letra hau otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 3. artikuluan Bi .apartatuak aldatu du , 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

¹³⁰ 2. apartatu hau abenduaren 16ko 18/2014 FORU ARAUaren 5. artikuluko sei apartatuak aldatu du. Aipaturako foru arauak Gipuzkoako lurralde historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan zenbait zuzenketa tekniko sartu eta zerga alorreko beste aldaketa batzuk onartzen ditu (2014/12/19ko GAO). Aldaketa 2014/12/20ean sartzen da indarrean.

b) Zergapean dauden ezarritako potentzia-kilowatioei dagokienean, hauen ordezturteko kilowatio-ordu kontsumoa benetan lan egindako ordueztatitzetik aterako den bataz besteko potentzia-kilowatioak jarriko dira.

c) Aurreko hizkiak aplikatu ahal izateko, urte zehatz batean indarrean egongo diren elementu zergagarriak zehaztearren, kalkularen oinarritzat aurreko ekitaldiko datuak hartuko dira.

4. Industrien geldiketa.

a) Industrietan interdiktio judizial, sute, uholde, hondorapen, indar higierazle gisa erabilitako ur-etorriaren desagerpen, edo ekipo industrialean matxura larriak gerta daitezenean, interesatuek zergaren kudeaketarako Administrazioari berri emango diote eta interdiktioa hogeitamar egunezt aurrera erabategi aztatuz gero, edo istripu edo industriaren geldiketa, kuotaren heintasunezt murriztapena lortu ahal izango dute, industriak funtzionatu gabe emandako denboraren arabera.

Ezarritako murriztapen hau ez da funtzionamendu denbora zaraturiko kuota duten industrietaz aplikagarri gertatuko.

b) Abelaztuntzako ustialekuetan interdiktio judiziala, sutea, uholdea, hondorapena, instalazioetako ekipoetan matxura, larriak eta izurrite edo epizootia kasuren bat gertatuz gero, interesatuek Zergaren Administrazio kudeatzaileari parte emango diote, aurreko a) hizkian aurrikusitako ondorioetarako.

15. Erregela: Zero kuotaren ziozt zerga ematea.

1. Tarifen aplikapenetik zero kuota gerta dadinean, subjektu pasiboek ez dute zergaren ziozt inolako diru-kopururik ordainduko, alta zein bidezko aitorpenen aurkezteko betebeharra bazterretsi gabe.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak beren etekin ekonomiko urriagatik inolako diru-kopururik ordaindu beharrik izan ez dezaten ihardueren, edo hauen moten, zero kuotaren ziozt zerga ematea aitortu ahal izango du. Kasu hauetan, subjektu pasiboek alta zein bidezko aitorpenak aurkezteko bete beharra izango dute.

16. Erregela: Kuoten gutxienezko zenbatekoa.

Aurreko Erregelaren oharmandakoetan ezik, kuoten gutxienezko zenbatekoa 37,32 eurokoa izango da.

17 Erregela: Kuotak ordainaraztea eta banatzea.¹³¹

Uztailaren 5eko Tokiko Foru Ogasunak arautzen dituen 11/1989 Foru Arauko 8. artikulua aipatzen dituen lankidetza-formulak, eta Foru Arau honen Bigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoari jarraiki eratzen diren Eskuordetza-Hitzarmenak kaltetu gabe, kuoten ordainaraztea eta banaketa ondorengo arau hauen arabera egingo da:

1. Udal kuotak ordainaraztea eta banatzea.

1. Gutxieneko udal kuoten ordainaraztea dagozkion jarduerak egiten diren udal barrutiko Udalak burutuko ditu.

Lokalak, edo lokal izaerarik ez duten instalazioak, Instrukzio honen 6.1 Erregelak bigarren paragrafoan lokalari ematen dion definizioan sartzen ez direnak, udalerri batean baino gehiagotan kokaturik daudenean, haiei dagokien kuota lokal edo instalazioaren zati gehiena dagoen udalerriko udalak exijituko du, eta udal horrek beste guztien artean banatu beharko du ateratzen den zerga kuota zenbatekoa, lokal edo instalazioak Zergaren matrikulan alta hartzearen ondorioetarako udalerri bakoitzean hartzen duen azaleraren arabera. Jarraian zehazten den eran jokatuko da:

A)¹³² Zehazki esanda, udal kuotaren zenbatekoa izango da banatu beharrekoa, eta honek barne hartzen du Zergaren Testu Bateratuak 11. artikuluen 1, 2 eta 3 apartatuetan hurrenez hurren arautzen dituen ponderazio koefizienteak, koefiziente bakarra eta kokapen indizea aplikatzezt ateratzen den kopurua.

B) Udalerrif afektatutzat joko dira, kuota banagarriari dagokion jarduera garatzen den instalazio edota lokalen zati bat hartzen dutenak.

C) Oro har, aurreko A) hizkiak aipatzen dituen kuotak udal barrutif bakoitzean dagozkion instalazioek edota lokalek hartzen duten azaleraren arabera banatuko dira. Ondorio hauetarako, lokalen edota instalazioen azaleratztat hartuko da: Lokal eta instalazio horien poligonoan sartzen dena, metro karratuetan adierazia eta, hala badagokio, beren planta guztiak batuz.

2. 4.2, H) Erregelako lehenengo paragrafoak aipatzen dituen kuotak Udal ordainarazleak era honetara banatuko ditu portu aldea zabaltzen den udalerrien artean:

¹³¹ 17. erregela honetako 1. araua abenduaren 27ko 26/2001 foru arauaren artikuluf bakarrak aldatu du. Foru Arau honek Ekonomi ihardueren gainezt zergaren testu bateratzailean onartzeari buruzko, apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailean aldatzen du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2002-01-15).

¹³² 1.1 A) arau hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUaren zazpigarren xedapen gehigarriaren 2. zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25koa).

A) ¹³³Zehazki esanda, udal kuotaren zenbatekoa izango da banatu beharrekoa, eta honek barne hartzen du Zergaren Testu Bateratuak 11. artikuluen 1, 2 eta 3 apartatuetan hurrenez hurren arautzen dituen ponderazio koefizienteak, koefiziente bakarra eta kokapen indizea aplikatuz ateratzen den kopurua.

B)Udalerri afektatutzat hartuko dira dagokion portu aldeak zati batean nahiz osorik hartzen dituenak.

C)Aurreko A) hizkiak aipatzen dituen kuotak portu aldeak hartzen duen udal barrutiko azaleraren arabera banatuko dira.

3. Aurreko 1 eta 2 zenbakietan aipatzen diren udal kuotak banatzeko ondoko erregelak aplikatuko dira:

A)Banaketa zergaren Udal Korporazio Ordainarazleko Lehendakariaren akordioz edo, hala badagokio, zerga-bilketako kudeaketa udalerri ordainarazlean bere gain duen entitateko organo eskuduna.

B)Kuotak banatzeko erabakia hartzeari begira, subjektu pasiboak, eragindako udalerriari eta beste edozein pertsona edo entitateari beharrezko irizten den informazio eta dokumentazioa eskatu ahal izango zaie, baina informazio edo dokumentazio hori ez da inoiz subjektu pasiboak aurkeztu behar dituzten alta, aldaketa eta baja aitortzeetatik etorrerik.

C)Banaketa- akordioan honen funtserako balioko duten elementu, irizpide eta inguruabarrak espreski agerraraziko dira.

D)Banaketa-akordioa, bera onartu eta hamabost laneguneko epean jakinaraziko zaie afektatutako udalerriari.

E)Kuoten banaketa honako epeotan egingo da eraginkor:

a)Bildutako zenbatekoa borondatezko aldian eta ordainagiri bidez jaso bada, kuotak hiru hilabeteko epean banatuko dira, borondatezko bilketa epea kuotak ordainarazten dituen udalerrian amaitzen den hilabetetik aurrera.

b)Aurreko lehen hiruhilekoan bildutako zenbatekoak badira eta alta aitortzeak, ofiziozko inklusioak, egiaztapen eta ikerketa jarduketak edo premiamenduzko prozedurak egitearen ondorioz sortu badira, kuotak urtaril, apiril, uztail eta irailean banatuko dira.

F)Udal kuotak ordainaraztea Ogasun eta Finantza Departamentuari dagokionean udalekin sinatutako eskuordetza hitzarmenetan hala ezarrita dagoelako, udal kuotak Ogasun eta Finantza Departamentuak berak banatuko ditu aurreko erregeletan eta aipaturiko lankidetzak hitzarmenetan xedatutakoari jarraituz.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretua arauemaileak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Otsailaren 1eko 3/1994 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako herrialde historikoko araudi fiskala, Estatuaren 1994erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 21/1993 Legea eta neurri fiskalei, funtzio publikoaren araubidearen erreformari eta langabeziarengatik babesari buruzko abenduaren 29ko 22/1993 Legean jasotako neurri fiskaletara egokitzen duena. (1994-02-14ko GAO).*
 - 13. artikulua honako hau aldatu du:
 - 9.2., 11., 12.artikulua.
 - 442 taldearen oharra, 651.7 epigrafearena, 653.3, 663.1, 963.1 eta 963.2, 965.3 eta 972.1 epigrafeenak ere.
 - 239.9, 319.9, 422.2, 505.5, 612.9, 654.6, 659.9, 663.9, 674.6, 933.2 eta 968.3 epigrafeak.
 - 2. sekzioko 228, 881 eta 888 taldeak.

¹³³ 1.2 A) arau hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUaren zazpigarren xedapen gehigarriaren 3. zenbakia aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25koa).

- 5. erregelaren 2.B) g) eta 14. erregelaren 1.F) b) 1.puntua
- *Urtarrilaren 31ko 5/1995 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako lurralde historikoko araudi fiskala abenduaren 30eko 1995erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 41/1994 Legean eta Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarte Mailakoei buruzko 42/1994 Legean xedatutakora egokitzen duena. (1995-02-09ko GAO).*
 - 38. artikulua honako hau aldatu du:
 - 615.3, 619.3 eta 653.1 epigrafeen oharra, 64. eta 65. multzoena, 662, 672 eta 673 taldeena eta 6. Sailarena ere.
 - 615.6 epigrafea.
 - 664 taldea.
 - 86. multzoa, eta
 - 5. erregelaren 2.B) g) 2. parrafoa.
- *Otsailaren 5eko 1/1996 FORU ARAUA, Gipuzkoako herrialde historikoaren 1996rako Aurrekontu Orokorrek onartzeari buruzkoa. (1996-02-13ko GAO).*
 - Laugarren xedapen gehigarriak 1.2 artikulua, 683 taldea eta 4. erregelaren 2.A) 5.parrafoa aldatu ditu.
- *Abenduaren 23ko 13/1996 FORU ARAUA, Gipuzkoako herrialde historikoaren 1997rako Aurrekontu Orokorrek onartzeari buruzkoa. (1996-12-31ko GAO).*
 - Laugarren xedapen gehigarriak 1. sekzioko 151 taldea eta 2. sekzioko 798 eta 799 taldeak aldatu ditu.
- *Martxoaren 18ko 26/1997 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 12/1996, 13/1996 eta 14/1996 legeetan nahiz 1/1997 Errege Dekretu Legean jasotako zerga neurri batzuetara egokitzen duena. (1997-04-04ko GAO).*
 - 20. artikulua honako hau aldatu du:
 - 505.7, 659.1, 972.2 eta 973.1 epigrafeak.
 - 659.3, 691.9 eta 971.1 epigrafeen eta 811 eta 812 taldeen oharrak.
 - 811 eta 812 taldeak.
- *Apirilaren 22ko 31/1997 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 12/1996, 13/1996 eta 14/1996 legeetan nahiz 1/1997 Errege Dekretu Legeak jasotako zerga neurri jakin batzuetara egokitzen duen martxoaren 18ko 26/1997 Foru Dekretuan izandako akatsa zuzentzekoa. (1997-05-02ko GAO).*
 - Foru Dekretu honek 505.6 epigrafea aldatu du.

- *Urriaren 28ko 6/1997 FORU ARAUA, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren testu bateratua onartzen duen apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailea aldatzeko. (1997-11-03ko GAO).*
 - Foru Arau honek 5.1 g) eta 5.2 artikulua aldatu ditu.
- *Otsailaren 17ko 12/1998 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako lurralde historikoaren araudia Estatuaren 198ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/197 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen duena. (1998-03-04ko GAO).*
 - 1. artikulua honako hau aldatu du:
 - 721.4, 751.1, 751.2 eta 963.1 epigrafeak.
 - 819 taldea.
 - 932 taldearen oharra.
 - 3. sekzioko 016 taldea.
 - 14. erregelaren 1. F) b) 3. puntua.
- *Zerga Neurriei buruzko apirilaren 27ko 3/1999 FORU ARAUA. (1999-05-03ko GAO).*
 - 7. artikulua xedapen hauek aldatzen ditu:
 - Zergaren tarifetako 1. sekzioaren 659.4 epigrafea aldatu du.
 - Zergaren tarifetako 1. sekzioaren 751.1 epigrafea aldatu du.
 - Zergaren tarifetako 1. sekzioan 848 taldea sortu du.
 - Zergaren tarifetako 1. sekzioaren 931.2 epigrafea aldatu du.
 - Zergaren tarifetako 1. sekzioaren 931.3 epigrafea aldatu du.
 - Zergaren tarifetako 2. sekzioan 745. taldean ohar bat sortu du.
 - II. eranskinean 14.1.F) erregelaren e) letraren koadroa aldatu du.
- *Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 FORU ARAUA. (1999-12-31ko GAO)*
 - 10. artikulua honako xedapen hauek aldatzen ditu:
 - 5. artikuluan 1. apartatuko c) eta f) letrak aldatu dira.
 - Lehen sekzioari 2. ohar komuna erantsi zaio Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren tarifetan. (I. eranskina)
 - II. eranskinaren instrukzioetako 14. erregelaren 2. apartatua aldatu da.
- *Otsailaren 1eko 3/2000 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duena. (2000-2-11ko GAO)*
 - 3. artikulua honako hauek aldatzen ditu:
 - 843.6 epigrafea sortu da Zergaren tarifetako 1. Sekzioan.

- 975 taldea sortu da Zergaren tarifetako 1. sekzioan.
- 44. Multzoa sortu da zergaren tarifetako 2. sekzioan.
- 3. Ohar komun bat gehitu da Zergaren tarifetako 2. sekzioan.
- II. Eranskinean jasotako zergaren tarifak aplikatzeko Instrukzioaren 14.1.F) erregelaren j) letra aldatu da.
-
- *Urtarrilaren 30eko 2/2001 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 6/2000, 13/2000 eta 14/2000 legeetara egokitzen duena. Hona hemen lege horiek: abenduaren 13ko 6/2000 Legea, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presako zerga neurriak onartzekoa, abenduaren 29ko 13/2000 Legea, Estatuaren 2001. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, eta abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurri fiskalei buruzkoa. (2001-02-08ko GAO)*
 - 4. artikulua, I Eranskinean jasotzen diren Ekonomia Jardueren gaineko zergaren hurrengo tarifak aldatzen ditu: 1. sekzioaren 854. taldea aldatzen du, 2. sekzioko 45 multzoa sortzen du, eta 2. sekzioan 71 multzoa eta 762 taldea aldatzen ditu.
- *Gipuzkoako Lurralde Historikoko hainbat zerga neurri onartzen duen otsailaren 12ko 2/2001 FORU ARAUA. (2001-02-16ko GAO)*
 - 7. artikulua, hirugarren xedapen gehigarria gehitzen du.
- *Abenduaren 27ko 26/2001 FORU ARAUA, Ekonomi ihardueren gaineko zergaren testu bateratzailea onartzeari buruzko apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailea aldatzen duena. (GAO 2002-01-15).*
 - Bere Artikulu bakarrak 17. Erregelako 1. Araua aldatu du.
- *Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 FORU ARAUA. (2002-05-20ko GAO)*
 - 9. artikulua, Hirugarren Xedapen Gehigarriko 2 apartatua eta I. Erankineko 861 epigrafea aldatzen ditu.
- *Urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUA, Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duena (2003-02-06ko GAO).*
 - 11. artikulua II Eranskineko Jarraibideen 1. araua aldatu du.
- *Martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUA, toki entitateen zerga sistema aldatzen duena (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).*
 - Bere 3. artikulua 5. artikulua, 7. artikulua, 8. artikulua 2 apartatua, 9. artikulua 2 apartatua, 11. artikulua, 12. artikulua eta 14. artikulua 2 apartatua aldatu ditu eta 14 bis. artikulua berria sartu du.

- Bere Zazpigarren xedapen gehigarriak II Eranskinen Instrukzioko 10. erregelaren 3. zenbakia, 17. erregelaren 1.1 A) araua eta 17. erregelaren 1.2 A) araua aldatu ditu.
- *Zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUA (GAO 2004-04-16).*
 - Bere 9. artikulua I. eranskinean onartutako tarifen 1. sekzioaren 761.2 epigrafeari 3. oharra erantsi dio.
- *Gipuzkoako Lurralde Historikoko martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorra (2005-03-17 GAO)*
 - Bere amaierako hamaikagarren xedapenak honako prezeptu hauek aldatu ditu: 5. artikuluko 1. apartatuko c) letra, 6. artikulua, 14 bis artikuluko 1. apartatua, 16. artikulua eta II. eranskinaren II. kapituluko 3. arauaren 3. apartatua.
- *Uztailaren 9koa 3/2008 FORU ARAUA, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituen (2008-07-11ko GAO).*
 - 6. artikulua prezeptu hauek aldatu ditu:
 - 5. artikuluko 1. apartatuaren b) letra.
 - 14. artikuluko 1. eta 3. apartatuak.
 - 15. artikuluko 2. apartatua.
 - 17. artikulua.
 - 18. artikulua indargabetzen du.
 - Ohar bat eranstean dio 042 taldeari Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifen lehen sekzioan.
 - 251.7 epigrafearen izenburua aldatzen da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifen lehen sekzioan.
 - 833 taldearen 2. ohar orokorra aldatzen da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifen lehen sekzioan.
- *2006ko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, 1999ko apirilaren 26ko 2/1999 Foru Araua, zergadun ez-egoiliarren Errentaren Gaineko Zergarena, eta 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua, Zergen Foru Arau Orokorra aldatzen dituen martxoaren 17ko 1/2009 FORU ARAUA (2009-03-23ko GAO).*
 - Amaierako lehen xedapenak prezeptu hauek aldatu ditu: 67 eta 68 taldean ohar orokorrak eta eduki beharria erantsi du 969.4 epigrafearen amanean, guztiak jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifen lehen sekzioan.

- *4/2009 FORU ARAUA, abenduaren 23koa, zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen dituena (2009/12/28ko GAO).*
 - Bere 7. artikuluko prezeptu hauek aldatzen ditu: 5. artikuluko 1. apartatuaren c) letraren 3. erregela eta 14. artikuluko 2. apartatuari azken paragrafo bat gehitzen dio.
- *Udal zergen esparruan zenbait aldaketa sartzen dituen uztailaren 4ko 4/2012 FORU ARAUA (2012/07/10eko GAO).*
 - Bere 2. artikuluko prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 5. artikuluko 1. apartatuko c) letra.
 - 11. artikuluko 1. apartatua.
 - 14 bis artikuluko 2. apartatua.
 - 15. artikulua.
 - II. eranskinen 14. erregelaren 1. apartatua, «F) Lokalen azalera» elementu tributarioaren d) letrako I. taula.
- *2012ko abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUA, zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen dituena (2012/12/28ko GAO).*
 - Bere 11. artikuluko 5. artikuluko 1. apartatuko c) letra aldatu du 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.
- *17/2014 FORU ARAUA, abenduaren 16koa, Gipuzkoako lurralde historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauan zuzenketa teknikoak eta beste zerga egokitzapen batzuk sartzekoa (2014/12/20ko GAO).*
 - Lehenengo xedapen gehigarriaren 6, apartatuak I. eranskinaren lehen sekzioko 812. taldeko oharra aldatzen du.
- *18/2014 FORU ARAUA, abenduaren 16koa, Gipuzkoako lurralde historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan zenbait zuzenketa tekniko sartu eta zerga alorreko beste aldaketa batzuk onartzen dituena (2014/12/20ko GAO).*
 - Bere 5. artikuluko prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - I. eranskinaren lehen sekzioko 391. taldea.
 - I. eranskinaren lehen sekzioko 508. taldea.
 - I. eranskinaren lehen sekzioko 655. taldeari eduki berria gehitu zaio.
 - I. eranskinaren lehen sekzioko 861. taldea.
 - I. eranskinaren lehen sekzioko 982. taldeari eduki berria gehitu zaio.
 - II. eranskinaren 14. erregelako 2. apartatua.